

**AZERBAIJANEN ERASOA:**  
Nagorno Karabakheko  
desplazatuak, etxetik urrun,  
baina ez salbu > 4

**ASTEARI ZEHARKA BEGIRA**  
Memoria da, ez nostalgia;  
kazetaritza, ez efemerideak  
IÑAKI ALTUNA > 11

2023ko abenduaren 9a | XVII. urtea • 854. zenbakia  
0,50 euro

**GAUR8** 

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



**«KAKA ASKO DAUKAGU MUNDUAN,  
BAINA HAUR BAKOITZA ESPERANTZA  
BERRI BAT DA» > 22** Andoni CANELLADA | FOKU



**Nagorno Karabakheko desplazatuak: alde egin eta, hala ere, beldurrez** 04

**Frez Teame: «Tigrayko egoera beste gatazka batzuk baino larriagoa da»** 08

**«Speaker»-ak, informatzaile hutsizatetik kirol ekitaldien dinamizatzaile bilakatzera** 12

**Speedwatching fenomenoak, ikus-entzunezkoak azkarrago kontsumitzearen ondorioak** 18

**Josu Txapartegi «Txapas»:** «Kantuen bidez umea mundu bat sentitzen ari da» 22

**In fraganti: Mirari Martiarena eta Idoia Torregerai** 27



**SINADURAK:**

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:** Desberdintasunen erregaia da etxebizitzaren krisia
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Ke toxikoa bezalakoa
- 11 **Iñaki Altuna:** Memoria da, ez nostalgia; kazetaritza, ez efemerideak
- 16 **Amaia Ballesteros**
- 17 **Miren Azkarate Badiola:** Mila euro eta ezin iritsi
- 17 **Asier Aiestaran:** Barrenean bueltaka
- 20 **Luixa Reizabal:** Desgaitasuna eraldatuz: Bizimodu Independenterako Programak
- 21 **Xabier Izaga Gonzalez:** Henry Kissinger, «nerabe judu hura», eta Israel
- 31 **Josune Gallego Merino:** Irudi zientifikoaren askotariko mundua esploratzen: irudi hiperespektralaren potentziala



{ datorrena } **Maite UBIRIA BEAUMONT**

# Desberdintasunen erregaia da etxebizitzaren krisia

**C**ecile Duflot Etxebizitza eta Lurraldean arteko Berdintasunen ministro ohiaren esaldiak txapela ematen dio gogoeta honi. Egun, Osfam-eko lehendakariaren gisa mintzaz, etxebizitzaren auzia gizarte krisiaren lehergailu bilakatzeko arriskua dagoela ohartarazi du. Alarma jakina zen, eta gobernuz kanpoko erakundeak sirena zaratatsua piztu du.

Azkeneko bi hamarkadatan haien lan esfortzua saltzen duten herritarren diru-sarrerak baino lau aldiz gehiago igo da etxebizitzaren prezioa Ipar Euskal Herria barne den frantses Estatuan.

Joan zen mendeko 60ko hamarkadan familiek haien diru-iturrien %9 baliatzen zuten alokairua eta, oro har, jabego sozialeko etxebizitza politika lehentzi izan duen Estatuan.

Gaur egun, %23 behar dute erabili egoera ekonomiko osasuntsua duten herritarrek; %32, ordea, hilabete bukaera zailagoak dituztenek. Zer aldatu da bilakaera hori azaltzeko? Faktore ezberdinak ahal dira, dudarik gabe, aletu. Alta, eskubideen galera orokorra ezalatzeko agintari neoliberalak sarri aipatzen duten «kultura aldaketa» argudio gisa hartzeari uko eginez, Oxfamek faktore nagusia ezarri du mahai gainean. Bere txostenean jaso duenez, «sektore pribatuari ateak zabalduz, eskaera eta eskaintzaren arteko oreka hautsi du Estatuak, etxebizitza finantza-inbertitzaileen jopuntuan emanez».

Heldu den udaran iraganen diren Joko Olinpikoen harira, Crous izeneko ikasleentzako egoitza publikoak bere gain hartuko ditu Parisko hiriak, mundu mailako topaketa horrek sortzen duen jendea aterpetzeko erronkari erantzuteko. Aipaturiko egoitzetan bizi dira beka bati esker ikasketak egiten dituzten gazteak. Frantses estatuan, goi ikasketak egiten dituzten ikasleek %40k lan egiten du, ez bere formazioa osatzeko

asmoz, baizik eta alokairua, garraioa eta janaria ordaintzeko. Crous egoitzetako eskaintza handitzera jotatu ordez, ikasleak merkatuaren gurgil zoroan laga ditu Gobernuak. Airbnb-ko parketik etxebizitzak zurgatu beharrean, pobrezia buruzko txosten gehiengatik atal berezia merezi duten ikasleak behin-behinean kanporatuko dituzte.

Ez kexa. Ikasleentzako egoitza pribatuen sektoreak haizea alde du Hexagonoan, baita goi ikastetxe pribatuena ere. Litekeena da ordurako baten bat ohartu izana Paris ez dagoela, finean, uste bezain urrun?

Etxebizitzaren krisia ezberdintasunen erregaia dela ohartzeko, adinaren eskailera igotzea bezalakorik ez dago. Ikasleentzako egoitzak soilik ez, adineko jendea bizitzeko egitura pribatuak ere azkarki hedatu baitira,

Ikasleentzako egoitzetatik zahar-etxeetara, etxebizitza finantza-inbertitzaileen gosearen mende utzi duen politika publikoa da krisiaren iturburu nagusia

«gizartean dagoen premiari» erantzuteko. Izan ere, botere eragin-gunetik at mamituriko azterketak nolako emaitza eskainiko luke gizarte kudeaketa publiko-pribatuari buruz? Jangela kolektiboak, zahar-etxeak eta lan osasuna bezalako zerbitzuen kudeaketa dirua egitea xede duten enpresa-taldeentzako esku uzteak gizartearen babes sistema sendotu du, edo alderantziz, lan bat dutenen etxeko atariraino hedatu du ziurgabetasunaren mehatxua? Europarazale distiratsua zelakoan Emmanuel Macronen ispiluan begiratu zen Iñigo Urkullu lehendakari (kasik) ohiari auditoria soziala sinisgarria egitea gehiegi eskatzea da, seguruenik. Promo-despedida-maratoia hasia baita. •

# AZERBAIJANEN ERASOA

## Nagorno Karabakheko desplazatuak: etxetik urrun, baina ez salbu

**E**txeko balkoitik, Margarita Ghushuntsek sarritan begiratzen du ekialderantz, Nagorno Karabakherantz. «Harantz begiratzen dudana bakoitzean, handik ihes egitean pasa genuen infernuo gogoratzen dut. Amesgaiztoa behin eta berriz berpiztea bezala da», dio 32 urteko emakume armeniarrek.

Amesgaizto horrek bera bezalako 100.000 partaide ditu eta irailaren 19an piztu zen. Orduan, Azerbaijanek eraso bortitza burutu zuen Nagorno Karabakhen aurka. Egun gutxiren buruan, biztanleria osoak ihes egin zuen eskualdetik Armeniara. Ghushuntsek ere uholde horretan utzi zuen atzean bere jaioterria.

Armeniarrek «Artsaj» ere deitu ohi diote beren enkla-

**GIZA ESKUBIDEAK /** Gaiane YENOKIAN

Iragan irailaren 19ko Azerbaijanen erasoak Nagorno Karabakheko biztanleria osoa kanporatu zuen bere lurraldetik. 100.000tik gora dira beren etxeak atzean utzi eta ihes egin zutenak. Egun Armenian dauden arren, ez dute eraso berrien mehatxua uxatu, ezta beldurra ere.

beari. Sobietar Batasuna desegin zenean, bertako armeniar gehiengoa Azerbaijango errepublikan esnatu zen, ezustean. Independentzia eta nazioarteko onarpenaren bidea luzea bezain odoltsua izango zen. Bakuren kontra borrokatu eta irabazi egin zuten lehendabiziko gerran, 90eko hamarkada hasieran. 2020an, alabaina, Azerbaijanek eraso jo zuen

berriz. Turkiar eta israeldar dronek erraz indargabetu zituzten armeniarren tankeak, artilleria eta gainontzeko armamentu konbentzionala. Gatazka sei astez luzatu ondoren, azaroaren 9an, bake itun bat sinatu zuten Armenia, Azerbaijan eta Errusiako agintariek: su-etena, presoen trukaketa eta duela 30 urte Azerbaijanen kendutako lurak

Desplazatuena ilara luzea Nagorno Karabakhetik ihes egiteko.  
Gaiane YENOKIAN

bueltatzea ziren, besteak beste, akordioaren puntu nagusiak.

Antza, ez zen nahikoa izan. Iragan iraileko ofentsibak sortutako beldurrak jota, karabakhtarrek lehenbailehen ebakuatu nahi zuten. Ordurako bederatzi hilabete eman zituzten setiopean, Bakuk Nagorno Karabakh eta Armenia lotzen dituen errepide bakarra moztu ostean. Irailean ireki zen berriz, baina noiznahi itxi zitekeen berriz. Margarita Ghushuntsek ere hala uste zuen: Stepanakert-etik –Nagorno Karabakheko hiriburu– Armeniako mugaraino 28 orduko bidaia nekagarria egin ondoren, Harutyun bere senarrarekin eta bien hiru seme-alabekin Togh herrixkara iritsi ziren. Margaritaren aita bertan bizi da, eta gizonak denak hartu ditu bere etxean egun.

Togh-en lasaitasuna nagusi izango zelakoan zeuden, baina herria, hain zuzen, Azerbaijanekiko mugan dago. Margaritak etsaiaren posizio militarrik ikus ditzake etxeko balkoitik, bai eta Azerbaijango banderak ere inguruko mendien gailurretatik.

«Tiroak ere entzuten ditugu. Hori dela eta, nire seme-alabek ezin dute lasai lo egin. Trumoi hotsa entzuten dute niregana jotzen dute. 'Ama, tiro egiten digute berriz?', galdetzen didate halakoe-tan».

### ERAILAK ETA TORTURATUAK

Irailaren 28an, Artsajeko azken buruzagi Samvel Shajramanianek enkla-bearen desagerpen ofiziala iragarri zuen. Berak sinatutako dekretuaren arabera, Nagorno Karabakheko Errepublika «desegintzat» joko da 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera.



## Irailaren 28an, Artsajeko azken buruzagi Samvel Shajramanianek enklabearen desagerpen ofiziala iragarri zuen. Nagorno Karabakheko Errepublika «desegintzat» joko da

### Dagoeneko Armenia osoan zehar banatuta daude karabakhtarrak; Gobernuak emandako aterpeetan, alokatutako etxeetan, senideen etxeetan... Badakite ez direla inoiz bueltatuko


Dagoeneko Armenia osoan zehar banatzen da bere biztanleria. Batzuk gobernuak emandako aterpeetan daude; etxeak alokatu dituzte beste batzuek eta senideen etxeetan edo solidarioek eskainitako bizitokietan instalatu dira. Munduko beste hainbat desplazatu ez bezala, karabakhtarrek jakin badakite ez direla inoiz bueltatuko.

Hainbat hitzaldi publikotan eta nazioarteko bileratan, Azerbaijango presidente Ilham Aliyevек azpimarratu ohi du Nagorno Karabakheko armeniarren eskubideak «Azerbaijango legeria nazionalarekin eta nazioarteko konpromisoen bidez» babestuko liratekeela. Baina armeniarrek ez dira fidatzen. 40 baino gutxiago gelditu omen dira setiatutako enklabean. Bertan, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearen laguntza humanitaria jasotzen dute.

Anahit Manasyan giza eskubideen defendatzaile armeniarrek jakinarazi zuenez, iraileko erasoan ostean biktimen gorpuek tortura eta mutilazio zantzuak zituzten. Bestalde, Armeniako Ikerketa Batzordeak urrian argitaratutako datuen arabera, azerbaijandarren armadak 14 pertsona torturatu zituen. Beste 64, Karabakhetik Armeniarako errepidean hil ziren.

Erevanen G8ri eskainitako elkarrizketa batean, abokatua eta nazioarteko zuzenbidean eta giza eskubideetan aditua den Siranush Sahakyanek antzeko kasu batzuk ekarri ditu gogora. «2020ko gerraren ondoren, Hadrut eta Shushi eskualdeetako 70 armeniar zibilek bertan gelditzea erabaki zuten, azerbaijandarrak sartu zirenean. Bakura eraman zituzten, eta bertan, torturatu eta hil egin zituzten», dio Sahakyanek.

NBEk ere «Karabakheko armeniarren eskubideak eta segurtasuna» bermatzeko deia egin dio Azerbaijani. «Deia egiteaz gain, NBEk ere horretarako baldintzak sortu beharko lituzke», kexu da Sahakyan. Bere ustez, bi «oinarrizko» pauso eman beharko lirateke. «Batetik, armeniarren aurkako gorroto-kanpaina amaitu



100.000tik gora desplazatuen artean 30.000 adin txikikoak dira.  
Gaiane YENOKIAN



Lerro hauen alboan, Goris herrian altxatutako kanpamendua. Beheko irudian, eraso baten zantzuak ibilgailu batean. Gaiane YENOKIAN



behar da; bestetik, aginte osoa duen nazioarteko mekanismo bat ere bidali behar da Azerbaijanera, armeniarrek babes-tearren. Egoera ez bada aldatzen, ez da inor itzuliko», azpimarratzen du legelariak.

#### ERASO BERRIEN BELDUR

Margarita Ghushuntsen alaba txikia, Rozai, Nagorno Kara-

bakheko blokeoaren erdian jaio zen. Hilabete haietan zehar, gasa, elektrizitatea, elikagaiak, botikak eta erregaia kendu zizkieten enklabe armeniarrei. Osasun sistema ere bertan behera geratu zen. Edonola, ez ziren izan bizibaldintza gorrienak Margarita Stepanakertetik kanporatu zutenak.

«Blokeoaren ankerkeria jasateko prest geunden denok, gure eskubideak babestearren. Tamalez, azken erasoaren ondorioz, Artsajeko Gobernua armak entregatzera behartu zuten. Herria babestuko zuen armadarik gabe, bizirauteko aukera denak galdu genituen», damu du armeniarrek.

**NBEk ere «Karabakheko armeniarren eskubideak eta segurtasuna» bermatzeko deia egin dio Azerbaijani. «Deia egiteaz gain, NBEk horretarako baldintzak sortu beharko lituzke»**

**Desplazatuena premiazko beste behar batzuk ere bistakoak dira; karabakhtarrek armeniar pasaporte dute betidanik, baina horrek ez ditu armeniar herritar bilakatzen legearen aurrean**

Bizilagunek galdetzen omen diote ea herrian geratuko den bere familiarekin. Margaritaren erantzunak kezka bizia sorrarazten du beti. Desplazatuak dio azerbaijandarren tropek «edozein unetan» eraso egin dezaketela Armenian.

Gerta daiteke. Armeniako Kanpo Arazoetako Ministerioak gogorarazi duenez, 2020ko gerraz geroztik Azerbaijanek 150 kilometro koadro okupatu ditu Armeniako Errepublika barruan. Azaroaren leian, Genozidioa Prebenitzeko Lemkin Institutuak «Bandera Gorriko Alerta» bat igorri zion Azerbaijani. Datuzen egun edo asteetan inbasio bat burutuko delakoan dago Lemkin.

Urriaren 3an, Armeniako Parlamentuak Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutua berretsi zuen. Nazioarteko zuzenbidean aditu Siranush Sahakyanen ustez, Azerbaijango krimenei buruzko nazioarteko ikerketa bat gauzatzeko baliagarria izan daiteke. «Azerbaijanek Erromako Estatutua ez berresteak oztopoak sortzen ditu, Artsaj-en bere krimenak ikertzeko. 2021eko maiatzetik aurrera, baina, jurisdikziopean geratuko da Armenian, nazioartean onartutako lurraldean, egindako krimenengatik. Hori izan liteke Arme-

nia babesteko moduetako bat», azaldu du Sahakyanek.

#### 070 KODEA

Nazioarteko ebazpenak gauzatu baino lehen, desplazatuaren premia beste behar batzuk bermatu behar dira. Karabakhtarrek armeniar pasaporteak dute betidanik, baina, antza, horrek ez ditu armeniar herritar bilakatzen legearen aurrean.

«Herritarrak ez, errefuxiatuak gara pasaportean 070 kodea dugunok», argitu du Anush Ghavalyanek. Stepanakerteko kazetaria dena Erevanen gelditu zen bere herriaren gaineko blokeoak iraun zuen bitartean, etxera bueltatu ezinik. Dioenez, burokraziari egin behar diote aurre orain denek. «Lehen pausoa errefuxiatu agiria lortzea da. Gero, norberak erabaki dezake estatus horrekin gelditu ala herritartasuna

eskatu. Zalantza asko daude, jendeak ez baita zer den hobe epe motzean», azaldu du Ghavalyanek.

Armenian geratu partez, karabakhtar batzuek erbeste-rantz jo dute dagoeneko. Avanesyandarrak, ordea, Armenian zehar sakabanatu diren horietakoak dira. Hasieran, Vazashen herrira jo zuten, baina laster erabaki zuten etxex aldatzea berriro.

«Gure bizilagunak azerbaijandarren posizioak seinalatu zituen, herriaren parean, hain zuzen. Ezin zuen ganadua bazkatzea eraman, azerbaijandarrak animaliak lapurtzen zituztelako. Bost seme-alaba ditut. Izutu egin ziren, eta beste babesleku bat bilatu behar izan genuen», gogoratu du Lusine Avanesyanek, Kalavan herrixkatik. Bertan instalatu ziren, hango udal ostatuak gelak es-

**«Gure bizilagunak azerbaijandarren posizioak seinalatu zituen, herriaren parean. Ezin zuen ganadua bazkatzea eraman, azerbaijandarrak animaliak lapurtzen zituztelako»**

**Karabakhen landatu zituen granada-zuhaitza sendoak ditu buruan oraindik 61 urteko emakumeak. Dioenez, duela urte asko landatu zituen, baina atzean gelditu ziren denak**

kaini baitzizkien. Nahi duten denbora geratzeko aukera daukate.

Kalavanera iritsi bezain pronto, Romela Avanesyan, Lusineren amaginarreba, bertako baliabideak aztertzen hasi zen: baratzea eskuratzeko aukerak, ganadua lortzekoak... Karabakhen landatu zituen granada-zuhaitza sendoak ditu buruan oraindik 61 urteko emakumeak. Dioenez, duela urte asko

landatu zituen, baina atzean gelditu ziren denak, jakina. Etxetik betiko ospa egin behar zuen uneetan, kuttunenak zituena eraman zituen: bere lorategiko landareak eta haziak. «Bilobei granada ukituak bakarrik biltzeko esan nien, eta besteak heltzen uzteko», gogoratu du Avanesyanek. «Baina granada horiek galduta daude betiko, bai eta gure lurraldea zena ere».

Ezkerraldean, Karabakheko umeak Armeniako Kalavan, herriko jolas parkean. Eskuinaldean, 61 urteko Romela Avanesyan. Bizitza berria hasi behar izan du hutsetik.  
Gaiane YENOKIAN



# «Tigrayko egoera beste gatazka batzuk baino larriagoa da, baina munduak ez ikusiarena egiten dio»

**U**rtebete da Etiopiako Gobernuak, Eritreakoaren laguntzarekin, Tigrayko matxino independentistekin zeukan gerra amaitzeko su-etena sinatu zuela Hego Afrikan. Gatazkaren zati odoltsuenari amaiera eman bazitzaion ere, Tigrayko herritarrek eta diasporan dauzkaten ordezkariak diote egoera ez dela konpondu. Oraindik ere erasoak gertatzen direla salatzen dute, eta Tigray bi urtez setiatuta eta erasopean egon ostean, gose-teari eta gaixotasunei aurre egiteko agindutako laguntzarik ia ez dela iritsi kexu dira.

## **Su-etenaren hitzarmenetik urtebetera, zein da Tigrayn egun dagoen egoera?**

Arma isildu dira, orain jendea ez doa ihesi bizia salbatzeko. Baina beste gauza batzuk ez dira hainbeste aldatu. Gose-tea, medikamentuen falta, Tigrayko lurraldea oraindik okupaziopean egotea. Jendea izugarrikerien biktima da oraindik ere, Eritreako gobernuaren eta Etiopiakoaren aldeko Amhara etniako milizien mende. Era berean, AEBetako Gobernuak eta nazioarteko komunitateak, Munduko Elikagaien Programak eta abar, bertan behera utzi dute laguntza. Beraz, alde horretatik, herrialdean bertan ez dago aldatetarik. Tigraytarrak biktimak gara. Badakigu zer den gerra, eta zer dakarren. Bakearen alde gaude, ongi etorria ematen diogu bake honi, itxaropena daukagu bake iraunkorra iritsiko dela. Horretarako, espero dugu nazioarteko komunitateak, AEBetako Gobernuak, presio egingo diola Etiopiako

gobernuari, bake-akordioa bete dezan, normaltasunera itzultzeko.

Gaur, gauzak bestelakoak dira guretzat. Azaroan gogoan dugu gerra duela hiru urte hasi zela, 2020ko azaroaren 20an. Egun hartan gure bizitzak betiko aldatu ziren. Ordu arte herririk baketsuena ginen, jende atsegina, etxe ederrak genituen, ingurune baketsua, baina egun hartatik gure bizitza miserablea da, negarra da, beldurra da, basamortua da. Azaroaren 4a Tigrayko genozidioaren egun bezala aitortzea nahi dugu. XXI. mendean genozidioa egon delako, eta munduak ez ikusiarena egin diolako.

## **Beste gatazka batzuek duten arretarekin alderatuta, estandar bikoitza ikusten duzue?**

Etengabe ari gara hori esaten. Arrazismoak leku handia izan du, ehunka mila tigraytar errugabek galdu dute bizia gerran. Tigrayko genozidioa Gazakoa baino okerragoa da, Ukrainakoa baino okerragoa, Siriakoa baino okerragoa, beste edonongo krisia baino okerragoa da, baina nazioarteko komunitateak eta AEBetako Gobernuak ez ikusi egin diote, beltzen krisi bat delako, Afrikako krisi bat delako. Beraz, nazioarteko komunitatearen estandar bikoitza agerian geratu da, arrazismoak rol garrantzitsua dauka genozidio honi ez ikusi egiteko garaian.

## **Bake akordioaren arabera, Eritreako tropek Etiopiako lurraldea abandonatu behar zuten, baina oraindik ere Tigrayn daude.**

Horregatik esaten dugu akordioa ez duela betearazi Etiopiako aldeak, nazioartean onartutako Etiopiako Gobernuak lan

egin beharko luke Eritreako tropak eta Eritreako Gobernu bera Tigraytik irten daitezen. Ez daude tropak bakarrik, Gobernu ere Tigray iparraldea eta mendebaldea eta bertako bizilagunak gobernatzan hasi da. Etiopiako Gobernuak eta nazioarteko komunitateak Eritreako Gobernuari presio egin eta erantzukizunak eskatu beharko lizkiokete. Zigor gogorak ezarri beharko litzaizkioke Eritreari, akordioa betetzen duen arte. Tamalez ez da hala gertatu.

## **Zure seme-alaba batzuk ere Euskal Herrian bizi dira.**

Maria, Isabel eta Nicolas bizi dira hemen. Mariak diseinuan lan egiten du eta bere umeak erabat euskaldunak dira. Ni harrituta egoten naiz euskaraz nola hitz egiten duten entzuten. Isabelek oso ondo idazten du. Nicolas eskultore ona da, ez du sekula amore ematen. Kasu berezia dela esango nuke. Ni banandu nintzenetik, oso larri ibili gara diruz eta Nicolasek gorriak ikusi ditu, baina ez du sekula pauso bat atzera eman, bere bideari eutsi dio. Oraintxe ari dela esango nuke bere lana kaleratzen. Santiagori ere asko gustatzen zaio Euskal Herria, baina Tunisian du lana eta han jarraitzen du, nahiz eta Euskal Herriko egoera oso gertutik jarraitzen duen. Santiago izugarri pertsona koherentea da. Txikitatik bizi izan da liburuen artean. Pertsona irekia da, baina liburu artean bizi izan da beti. Izugarri zehatza da gauzak aztertzerakoan.

## **Akordioa gerrako une gogor batean gertatu zen. Nola bizi dira biztanleak gaur egun?**

Izugarria da. Egiaz, genozidioa, sarraskia, ez zen amaitu

## **FREZ TEAME**

### **DIASPORAN BIZI DEN TIGRAYTARRA**

Hiru seme-alaba Euskal Herrian ditu Frez

Teame tigraytarrak, eta laugarren batek ere harreman zuzena du gure herriarekin.

Tigrayn bizi duten egoera azaldu digu.





Urtzi URRUTIKOETXEA

duela urtebete sinatutako akordioarekin. 3.000 tigraytar baino gehiago hil dituzte Eritreako gobernuak eta Amhara-ko gobernu erregionalak. Beraz, genozidio sistematikoak jarraitzen du Tigrayn. Munduak dio Bake Akordioa edo su-etena sinatu zelako dena ondo dagoela Tigrayn, baina ez dago ondo. Jendea hiltzen ari da. Oraindik ere eraso hilgarriak egiten dituzte bi gobernuak. Horrez gain, hiltzaile indartsuena dago, gosea, lau milioi tigraytarrek sufritzen dute gosetea. Jendea gosez hiltzen ari da. Jendea botika faltatik hiltzen ari da; akordioaren arabera, munduak

aktuatu beharra zeukan, eremu humanitarioan batez ere. Tonaka eta tonaka laguntza iritsi behar omen ziren, janaria, eta hornidura eta larrialdifuntsak. Ez da halakorik gertatu. Zertan lagunduko dio papereko sinadurak Tigrayko jendeari? Ezertan ez.

#### **Tigrayko Gobernuak eta haren agindupeko indar armatuekiko zein jarrera duzue?**

Akordioaren alde gaude, gure (Tigrayko) gobernuaren eta gure herriaren alde eta akordioaren arabera jokatzeko nahi dugu. Baina akordioak Tigrayko jendea babestu behar du, orain ez baitaude ezer: TDF (Tigray-

ko Defentsa Indarrak) desegin egin zen akordioaren ostean, eta Tigrayko jendeak ez dauka babesik. Diasporatik, nazioarteko komunitateari presio egiten diogu gure jendea babes dezan. Gure herrikideak arriskuan daude oraindik, ez dugu babesik. Etsai beldurgarria dugu iparraldean, Eritrea, baita mendebaldean eta hegoaldean ere, Amhara Gobernu erregionalarekin oraindik arriskuan gaude, ez dakigu zer egongo den biharko egunean. Horregatik dago diaspora munduari aldarrika, akordioa erabat bete dadin. Era berean, kriminalek erantzukizunei aurre egin beharko liekete, genozidioaren

*«Egiaz, genozidioa, sarraskia, ez zen amaitu duela urtebete sinatutako akordioarekin. 3.000 tigraytar baino gehiago hil dituzte Eritreako gobernuak eta Amharako gobernu erregionalak. Beraz, genozidio sistematikoak jarraitzen du Tigrayn»*

gehiago eta jende gehiago gobernatzeko. Beraz, auzia garai hartatik dator, eta konpondu beharko litzateke. Lur guztiek tigraytar toponimia daukate, biztanleen % 80 tigraytarrek dira, nola demontre esango duzu amhara lurraldea dela?

#### **Nola ikusten duzu etorkizuna, Tigray independente bat, Etiopia barruan...**

Guri, diasporan, justizia eta erantzukizuna eskatzea dago-kigu. Tigrayko herritarrek erabakiko dute Etiopiako sistema federalean jarraitu nahi duten ala euren eremu independentea eratu nahi duten. Ez dago-kigu guri esatea. Diasporan, justizia eta erantzukizuna eskatzea dago-kigu.

#### **Diasporan Etiopiako komunitate ugari daude, Washington inguruan esaterako. Gerra egon zenean, izan zen tentsiorik. Nola dago giroa?**

Etiopian krisi ugari daude, Tigraykoa hor dago, Oromiakoa ere bai. Guk edonorekin lan egin dezakegu, baina aitortza nahi dugu, aitortzea genozidioa egin zela, barkamena-eskatzea, gizatasun apur bat, eta gero, elkarrekin lan egin dezakegu.

#### **Besterik erantsi nahi duzu?**

Munduari esan nahi diot krisi hau, genozidio hau, ezkutatu egin zaiola munduari, nazioarteko komunitateari. Etiopiak genozidioa egin zuenean, Tigray mundutik deskonektatu zuen, ilunpean utzi zuen. AEBetako hauteskundeak ziren egun horietan, 2020ko azaroan, mundu osoa adi zegoen horretara, eta Etiopiak berariaz egin zuen hori, krimena ezkutatzeko. Munduak jakin behar du genozidioa gertatu zela XXI. mendean.

kriminalak ez lirateke libre egin beharko.

#### **Tigray mendebaldean gatazka larriago dago. Zer gertatzen da?**

Lurralde-gatazka bat dago Amhara gobernuarekin luzaroan. Historikoki, gure lurraldea izan da, mendeetan bertan bizi izan den herria tigraytarra izan da. Tamalez, Eritreak ere gutizia du, eta nekazaritzarako lur emankorra da, horregatik Amhara Gobernuak Tigrayri kendu eta amharei eman nahi die. Historian, aurreko gobernuan, Haile Selassieren agindupean gobernu erregionala eratu zen, monarkiak lur



**Saioa AGINAKO LAMARAIN**  
Psikoterapeuta

## Ke toxikoa bezalakoa

**N**egatibotasunez inguratuta bizi gara, izan ere, batzuetan, gu negatiboak gara, eta beste hainbatetan beste batzuek kutsatzen digute negatibotasuna. Lankideek, senitartekoek, ezagunek, telebistako albisteek eta abar luze batek, batera edo bestera. Horrek egunero eta konturatu gabe, zure zaugarritasunaren arabera, negatibotasuna pixkanaka zure baitan barneratzen laguntzen du. Kutsatze emozionalak ohikoak dira gizarte-interakzio guztietan. Horrela, bere atsekabe eta frustrazioarekin asetzen zaituena modu egokian maneiatzen ez baduzu, egoera afektibo horren irradiazioak eramango zaitu.

Adierazpen hori protagonista den gizarte batean bizi gara. Norabide askotatik datoz eta kexa garrantzitsuak eta ondo oinarrituak izan daitezke, edo, aitzitik, gai hutsalengatik edo oso argudio ahulengatik sostengatuak. Hala ere, ahaztu egiten zaigu kexak behin eta berriz entzuteak eragina izan dezakeela kexak entzuten dituenarengan.

Desadostasuna edo desatsegina adieraztea erantzun natural eta osasungarria da. Egoera bat aldatzeko modu bat izan daiteke, lanean, harremanean, familian arazo bat dagoenean. Hala ere, pertsona batzuek bizimodua hortik egiten dute. Denok ezagutzen ditugu kexak adierazten dituztenak baino, kexetan bizi diren pertsonak. Ezer ez zaie ondo iruditzen, eta denak gogaitzen ditu. Seguru lerro hauek irakurri ondoren norbait duzula buruan. Eguna hasi zenetik, badute zer deitoratu: bero egiten du, hotz egiten du, denbora behar izan dute zerbitzatzeko, ez dute ahalginik egin plater bat prestatzen. Eta, are okerrago, ez dute irtenbiderik proposatzen edo ez dute zerbait egiten beren egoera aldatzeko.


Etengabe kexatzen diren pertsonak edukitzea, aipatutakoak bezala, zalantzarik gabe, estres iturri bat da. Kexak entzuteak pentsamendu eta emozio negatiboak izatera garamatza. Kezka sortzen digu, eta, horrekin batera, beldurra eta tristura hazi egiten dira, baita zerbait, edo dena, gaizki doanaren eta erne egon behar denaren sentipena ere. Gainera, kexak entzuteak gure ongizatea eta kontzentrazio-gaitasuna murriztea eragiten du, arreta-baliabideak estimulu gehiagoren artean banatu behar baitira. Horrek, gainera, erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko gaitasunari berari

eragiten dio, elementu garrantzitsuei erreparatzeko eta aukerak baztertzeko gaitasuna aldatu egiten baita.

**Kexa obsesibo eta iraunkorren hondoa jota dagoenak jorkabide estalgarria erakusten du.** Hau da, barruan badira landu gabeko errealitateak, aintzat hartu ez dituen etsipenak, tristurak eta konpondu gabeko ondoezak. Egia da edonori deseroso zaiola denbora eta espazioa partekatzea dena ilun ikusten duenarekin. Inork ez du ukatzen figura horiek oso higagarriak direnik.

Hala ere, profil hori duen pertsona batekin bizi bazara, arreta eman hurbiltasunez eta enpatiaz. Batzuetan, geldiaraztearekin, behatzearekin eta gertatutakoa ulertzearekin ere nahikoa izango da. Pertsona dohakabea da, aurre egiteko baliabiderik ez duena eta laguntza psikologikoa jasoko lukeena. Proposatu pauso hori ematea. Erabaki hori hartu bitartean, zaindu zure ongizate emozionala. Negatibotasun iraunkorra zure indarguneak gaixotzen dituen ke toxikoa bezalakoa delako. Gure erabakia da gure energia pixkanaka bizitzera edo hiltzera bideratzea. •

saioaaginako@gmail.com



Negatibotasunez inguratuta bizi gara. GETTY IMAGES

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

# Memoria da, ez nostalgia; kazetaritza, ez efemerideak

**G**ARA jaio zela 25 urte beteko dira datorren urtean. Herriak sortu zuela esan daiteke, milaka eta milaka herritar xumeren ekarpenaz eraiki baitzen proiektua, di-da, “Egin” itxi eta hilabete gutxira, errepresioak emandako zaplazteko izugarriari aurre eginez eta boteredunen amorrurako. Zer uste zuten, bada, ez ginela ausartuko? Ez da harrokeria, Jose Maria Aznar Espainiako presidentek “Egin” ixteko erabilitako esaldiari buelta ematea lortu genuela adierazteko modua baizik. Euskal erresistentziaren garaipen bat gogoratzeko modua, nahiz eta gure garaipenak beti gazi-goza izan ohi diren, sufri-mendu eta zailtasun handiz erdietsitakoak baitira. Injustiziak bere ordainsaria jasoa zuen orduko hartan ere, lagun asko urte luzez kartzelan sartuz.

Orduz geroztik, komunikazio proiektua arian-arian garatu da, beste produktu eta egitasmo askorekin. Interneten, sareko erreferentzia nagusi gisa, NAIZ jaio zen 2012an, eta orain dela urte gutxi NAIZ irratia dugu uhinetan. Horrek denak merezi du geldialdi bat egitea, atzera begiratzeko, eta zer egin den eta egindako horrek zer balio izan duen ikusteko. Gauza asko dago gogoratzeko.

## ETORKIZUNEN ARTEFAKTUA

Memoria ariketa hori egiteko ekimen erraldoia jarriko du martxan urtarilaren letik aurrera gure komunikazio proiektuak, gure komunitatearentzat ere, aktiboki parte hartu dezan, zabalik egongo dena.

“Artefaktua” hitz gakoetako bat da ekimen horretan, baina “Etorkizuna” jarri diogu aurretik, “Etorkizuneko Artefaktua”: hain zuzen ere, ez baita iraganen katramilatuta geratzeko garaia. Proiektuak aurrera begira behar duen garapenari bultzada berri bat

emateko ordua da. Ia 50 urtez gure komunikazio bitartekoek izan duten balioa gogoratzuz, etorkizunean ere –Euskal Herriari datozkion erronkei aurre egiteko– egin behar duten ezinbesteko ekarpena nabarmenduko dugu. Datozen urteetan ere euskal errealitatea islatzeko, eman beharreko eztabaidak pizteko eta egituratu beharreko proposamenei bide emateko lanean segitu beharko dute gure komunikabideek, eta horretarako, beharrezkoa da orain indarberritzea.

Aurrera egiteko memoria ariketa dugu honakoa, ez nostalgia pizteko saioa. Nostalgia sentimendu goxoak sorrarazten ditu zenbaitetan, baina sarri atzera-koia ere bada. Zer uler daiteke, bestela, hiztegitik jasotako definizio honetatik?: «Galdutako zorion baten oroitzapenak eragindako tristura malenkoniatsua».

Ez gaude horretan. Lan handia eta gogotsua egin da urte hauetan guztietan, eta aurrerapauso nabarme-

la 50 urtez gure komunikazio bitartekoek izan duten balioa gogoratzuz, etorkizunean ere egin behar duten ezinbesteko ekarpena nabarmenduko dugu

nak egin ditugu, baina horrek denak batez ere aurrera egiteko balio behar digu.

Kazetaritzatik helduko diogu erronkari. Horregatik, hain zuzen, “Artefaktuari” erredakziotik egingo diogun ekarpena ez da efemeride sorta soil bat izango. “Artefaktua” guretzat kazetaritza ariketa bat izango da; egunero kronika osatuak egiteko, garaian egindako euskal kazetaritzaren harribitxiak berreskuratzeko eta gaurko begietatik orduko gertaerak aztertze-ko. Protagonistei ere hitza emango diegu.

Memoria da, ez nostalgia; kazetaritza da, ez efemerideak. Etorkizuna da. •

# «SPEAKER»-AK

Informatzaile hutsak izatetik kirol ekitaldien dinamizatzaile izatera

📁 KOMUNIKAZIOA / Asier AIESTARAN

Azken urteetan asko aldatu da zale eta jarraitzaileek kirol ekitaldi batean bilatzen dutena. Kirol ekitaldi hori ikusi bakarrik ez, esperientzia bat bizitzea izaten da helburua. Antolatzaileek ederki asko dakite hori, eta «speaker» edo esatariaren lana, Djarekin edo kasu batzuetan argizatzailearekin elkarlanean, ezinbesteko elementua bilakatu da esperientzia horiek osatzeko. Esperientzia eta arrakasta handia duten gure inguruko hiru profesionalekin hitz egin dugu lan horren gorabeherak hobeto ulertzeko.

*«Ni Oizmendi Telebistarako esatari lanak egitera joaten nintzen, baina aldi berean pilotalekuan "speaker" lanak ere egiten nituen. Mikro bat itzali, bestea piztu, eta biak egiten nituen»*

## UNAI NARBARTE

«Hemen bide bat dago, lanbide bat, eta beti esaten dut interesa duenak proba egin dezakeela»

Elementu eta faktore asko egon dira astelehenetan Gernikan jokatzeko den Jai Alai Winter Series txapelketak arrakasta izateko, baina zerrenda horretan leku berezia du Unai NARBARTE «speaker» bizkaitarrak. «Dinamizatzaile» kontzeptua aipatu ohi du berak, ohiko aurkezpenekin batera pilotalekuan giroa berotzea izaten duelako helburu.

«Ni Oizmendi Telebistan ibiltzen nintzen. Norbait behar zuten kirol emanaldietarako eta ni kirolarekin oso lotuta egon izan naiz beti. Futbolearen 20 urte baino gehiago egin ditut entrenatzaile. Esku pilotan aritua naiz, futbolearen, areto futbolearen, saskibaloian, errugbian... Oizmendi Telebistan futbola ematen nuen, pilotako gauza batzuk egiten ere hasi nintzen... Baina ni biologoa naiz ikasketaz eta ez nuen bide hori hartu. Jada bide hori uztekoan nintzela sortu zen zestakoa», azaldu digu.

«Irakasle lanetan hasi nintzen Bigarren Hezkuntzan, eta gainera aitite zaintzen nuen baserrian, baina jendeak ezagutzen zaitu eta mesedeak eskatzen dizkizute. Ekitaldiren bat aurkezteko, adibidez. Jendea kosta egiten zaio mikroa hartzea eta nik alde horretatik ez daukat konplexurik, eta jendea

gustatzen zaio egiten dudana. Eta frontoian ere esku bat botatzen hasi nintzen. Pilotalekua bota eta etxebizitzak egiteko proiekturen bat ote zegoen zurrumuruak zabaldu ziren, eta zesta apur bat mugitzeko jaialdi batzuk antolatzea zen ideia. Ni Oizmendi Telebistarako esatari lanak egitera joaten nintzen, baina aldi berean pilotalekuan "speaker" lanak ere egiten nituen. Mikro bat itzali, bestea piztu, eta biak egiten nituen», gehitu du lehen pauso haiez.

«Baina gero jada serioago hartzen joan ginen. Musika apur bat, DJa, giroa sortu... Master batzuetan hasi ginen, bost edo sei jaialdi uda partean, eta apurka hori ere hazten joan zen. Grand Slamak ere bai 2015-2016 buelta horretan...»

### IRAUPTZA TXIKI-HANDI BAT


Denborak erakutsi du «Gernikako formula» arrakastatsua suertatu dela, baina NARBARTEK gogoan du hasierak ez zirela horren errazak izan. «Gogoratzen naiz nola ibiltzen ginen Gernikako kaleetan sarrerak banatzen. Ni urte askoan ibili naiz frontoietan, eta ohituta geunden Markinara joan, adibidez, eta harmailetan 30 edo 40 pertsona ikusten. Pilotarien senideak eta betiko

zahar batzuk. Ez zen jenderik mugitzen. Eta hori guztiz aldatu da, apurka-apurka jende gaztez bete ditugulako pilotalekuak», dio.

Gernikako ikuskizuna lehen aldiz Markinara eraman zuteneko anekdota ere kontatu digu. «Markinan oso puristak dira, eta han musikarekin-eta sartzea zaila izan zen. Atzean goialdean nengoan, grabatzeko dagoen kaiolan, eta Markinan eskaloia handi bat dago, 50-60 zentimetrokoa. Ba eskerrak, ze etorri ziren hiru pilotari ohi... Ez dakit zein ziren, nik ez ditudalako asko ezagutzen. Batzuk bai: Remen, Aranburu, Txikito... Baina nolabait kultura hori apur bat galdu egin zen 90eko hamarkadaren amaieratik aurrera. Ba hirurak etorri ziren, bat hitz egiten hasten nintzenez makilarekin jotzen, musika kentzeko esanez, eta beraien artean eztabaidatzen 'bueno, tanto eta tanto artean agian markagailua esaten utz diezaiokegu'».

### ASTELEHENETAKO MIRARIA

Aipamen berezia merezi du neguko astelehenetan jokatzeko den Winter Series txapelketak. Estatu Batuetako azken pilotalekua itxi ostean, ETBren ekimenez sortu zen lehiaketa, telebistarako ikuskizun moduan eta



*«Nik txoko bat daukat pilotalekuan, lehen garagardo kaxa batzuen gainean hala moduz eta orain egokiago jarria, eta jende asko hurbiltzen da bertara»*

publikorik gabe jokatzeko asmoz, astelehen arratsean jendea frontoira erakartzea zaila izango zelakoan.

«Aurreneko Winter Series-a egin genuenean ez zen sarrerarik jarri salgai, beldurra zegoelako 2.000 pertsona sartzen diren pilotaleku bat erdi hutsik egoteko. Baina aurreneko egunean jada 400 bat pertsona inguratu ziren. Galdezka hasi ziren batzuk ea sartzerik bazegoen, eta asko lagunak eta ezagunak zirenez, sartzen utzi zitzairen. Eta badakizu, gaur egun mugikorrek berehala hasi zen zabaltzen kontua. Gero sarrera sinbolikoa jartzea erabaki zen, bost eurokoa, pentsatuz astelehena izanda bestela ez zela jendea

etorriko. Eta begira orain, bonuak saltzen, prezio arruntak, pilotalekua beti beteta...», dio Narbartek.

«Azkenean lortu dugu Ameriketako itzaltzean hemengoa piztea. Geratzen ziren sugar apurtxo horiei haize apur bat ematea. Jende asko dago lehen aldiz zesta ikustera etortzen dena. Askok aipatzen dizute: 'pelikula batean nagoela iruditzen zait'», gehitu du.

#### **BALDINTZAK HOBETZEN**

Unai Narbartek aitortzen duenez, zestak izan duen arrakastak asko aldatu ditu bere lan egiteko baldintzak –«nik txoko bat daukat pilotalekuan, lehen garagardo kaxa batzuen

gainean hala moduz eta orain egokiago jarria, eta jende asko hurbiltzen da bertara»–, eta kalean ere nabaritzen du ETBk lehiaketari eman dion oihartzuna. Zentzu horretan, argi du “speaker” edo esatariaren figura horrek ibilbide bat eskaini dezakeela serio hartuz gero.

«Esku pilotakoak ere ibili ziren nire atzetik, baina nik ez dut nahi. Hemen bide bat dago, lanbide bat, eta beti diot interesa duenak proba egin dezakeela. Aintzat hartzen badugu Winter Series txapelketa denboraldiaren hasiera bezala, eta irailean jokatu zirela Jai Alai League lehiaketaren finalak, urtean 50 saio baino gehiago egin ditut.

Lan bat da, eta horrela hartu behar da. Hasieran, adibidez, gogoratzen naiz Gernikakoa apur bat zabaltzen joan ginela: Mutriku, Gasteiz... Baina ez zegoen dirurik, eta azkenean nik aitite zaintzeko norbait kontratatzea frontoian ateratzen nuena baino gehiago kostatzen zitzaidan. Ondo pasatzen dut, gustatzen zait, baina ordu asko dira. Mutrikura joateko, adibidez, soinu teknikariekin bazkalostean geratu, kafea hartu eta lanera: hara joan, material guztia deskargatu, muntatu, probak egin... Gero frontoian musika jartzen hasi, atek zabaldu, zerbait afaldu, bi partidak egin, azken tragoa hartu, dena jaso... Goizeko ordu bietan edo hiruretan

etxera, basurdeak ikusiz Munitibar aldean. Azkenean, 12 ordu egon naiz etxetik kanpo, zaintzaile bat ordaindu behar, asteburua ezin lasai gozatu... Eta horregatik erabaki nuen apur bat mugatzea», dio.

Hala ere, haurren artean zesta berriz ere indartzen ari dela ikusteak asko betetzen du. «Ni oso harrobi zalea naiz. Entrenatzaile eta formatzaile moduan oso argi daukat gaztetxoek erreferenteak behar dituztela. Pilotariak erantzukizun bat dute alde horretatik eta hamar bat merezi dute. Goiko bera, bat aipatzearen, txapela kentzekoa da. Beti hartzen du jendea, argazkiak atera, kasu egin... Zorte handia daukagu».

**GORKA ETXABE**

## «Nik klubarekin dudan harremana ‘speaker’-a izatetik harago doa»

Futbol zelai handietan ere ohikoa da “speaker”-aren figura, eta badira ibilbide luzea egin duten zenbait profesional. Horietako bat da Gorka Etxabe, Mendizorrotzako ahots –eta orain aurpegi– ezaguna.

«Nire hastapenetan suertatu zen dena. Deportivo Alavesetik gerturatu ziren behin Radio Vitoriara, esatari baten beharra zeukatela esanez. Bereziki bi hizkuntzetan, euskaraz eta gaztelaniaz, ongi moldatuko zen norbait behar zutela. Eta horrela hasi nintzen. Egia esaten badizut, ez dakit ziur zenbat urte igaro diren, 27

edo 28 direla esango nuke», gogoratu du Etxabek.

Ia 30 urteko ibilbidean, Etxabek oso gertutik ezagutu du ofizioaren eraldaketa. «Garai batean informatzaile hutsak ginen, eta gaur egun ikuskizunaren parte gara. Gaur egun futbol zelai batera zoazenean, edo beste edozein zuzeneko kirol saio batera, esperientzia bat bizitzera zoaz. Baina garai batean ez zen horrela. Gure eginbeharra informatzaile hutsarena zen, eta gainera Euskadin oso ‘sobrioak’ gara zentzu horretan. Esango nuke zelai batzuetan oraindik ere hala direla, edo

*«Mendizorrotzan bakarrik lan egitetik taldean lan egitera pasatu naiz: bi kamera, titulatazailer bat, Dja eta ni neu. Sei pertsona ari gara partida batean esperientzia hori eskaintzen zaleei»*

hala garela. Gu saiatzen gara berritzen, zalea Mendizorrotzara datorrenean esperientzia bat biziarazten, eta batez ere jendea eroso sentiarazten. Hasieratik, partida hasi baino ordubete lehenagotik, amaitu arte, ondorenean ere esaten ditugulako gauza pare bat. Azken batean klubak daukan beste erreminta bat da ikuskizuna borobiltzeko».

Eta eraldaketa horretan aurrerapen teknologikoen zer ikusi handia izan dute. «Gurera argiarena oraindik ez da iritsi, estadio zaharra da eta berriarte ez dugu horrelakorik izango. Baina besteak bai. Bi pantaila erraldoi daude, pantaila horietara zuzeneko seinalea bidaltzeko aukera dago...

Aurten, adibidez, kamera aurreko batekin egiten dugu aurkezpena. Hau da, nik orain artean nire kabinatik egiten nuen aurkezpena, baina aurten ez. Aurten mikroa eskuan eta kamera aurrean, nire aurpegia bi pantaila erraldoietan ikusten dela aurkezten ditut partidak. Sarrera egiten dut, kanpoko taldearen aurkezpena, epaileena eta etxeko taldearena. Aldatzen doa dena. Dja ere hasiera-hasieratik sartu dugu aurten. Partida hasi aurretik, ordu erdi edo 40 minutu lehenagotik, Dja egoten da estadioa berotzen. Gero, irudiak zuzenean eskaintzen ditugu, publizitatea dago, gero ni sartzen naiz zelaitik kamera aurreko hori egiten...

**AITOR ELDUAIEN**

## «‘Speaker’ on batek aurretik lan ikaragarria izaten du etxean»

Kirol ekitaldietan “speaker” lanetan asko aritutakoa da Aitor Eldua, eta maiz pilota edo futbolarekin alderatuz beste ezaugarri batzuk dituzten probetan, mendi lasterketak edo triatloiak, esaterako. Hala ere, aipatzen duenez, lehen urratsak ez zituen kirol munduan eman.

«Jende aurreko lan hauek gehiago egin nituen hasieran kultura ekitaldietan kirol ekitaldietan baino. Tolosarra naiz, eta Tolosan kultur eskaintza handia da. Hor hasi nintzen 17-18 urterekin muturra sartzen, eta batean eta bestean ikusita beti zegoen norbait esaten zidana

‘etor hadi, hik balio duk eta’. Hori hasten da zaletasuna bihurtzen, zaletasuna izatetik profesio izatera ere pasa behar duela konturatzen zara, dedikazio handia eskatzen duelako, eta oraintxe da garaia 30 bat urte daramatzadana horrelako kontuetan. Garai batzuetan intentsitate handiagorekin, beste batzuetan gutxixeagorekin, baina fakturatuz eta urte osoan zehar», dio Mendi Film jaialdi ezagunean prentsa arloz arduratzen den komunikatzaile gipuzkoarrak.

Kirol ekitaldiei dagokienez, lehen kezka kirolariaren

ikuspegitik datorrela dio. «Kirolaria ere banaizenez, noizbehinka dortsala jartzen duena, lehen gogoeta hortik etortzen da: ‘Niri kirolari bezala zer informazio jasotzea gustatzen zait?’».

«Hortik abiatuta, lehen helburua da kirol ekitaldi baten animatzailea izatea. Bigarrena da ekitaldi horren informatzailea izatea. Horrek esan nahi du alde batetik kirolariei beharrezko informazioa helaraztea, askotan lasaigarriak eta argigarriak izaten direnak ongi eta zehatz helaraztea, eta bestetik, antolakuntzaren bozgorailua izatea. Eta hirugarrena, kirol ekitaldi hori jendeari ulertaraztea, bertaratu diren guztiei gertatzen ari dena transmititzea», zerrendatu du.

Zentzu horretan, hainbat urtez irradian egin zuen





Josu IZARRA

Erabat aldatu da», onartu du Gorka Etxabek, talde lanaren garrantzia goraipatuz: «Ni Mendizorrotzan bakarrik lan egitetik taldean lan egitera pasatu naiz. Gaur egun, horrelako zuzeneko batean bost edo sei pertsona ari gara lanean: bi kamera, titulatazailer bat, errealizadore bat, Dja eta ni neu. Sei pertsona ari gara partida batean esperientzia hori eskaintzen zaleei».

#### HARREMAN BEREZIA

Futbolak mugitzen duen jendetza ezin da beste kirolekin alderatu, baina hor ere badira desberdintasunak. Gorka Etxabek, adibidez, Lehen Mailan ezagutu du Alaves, bi final handi jokatzeko –UEFAkoa 2001ean

eta Kopakoa 2017an–, baina baita Bigarren B Mailan ere. «Lehen Mailan egonda 20.000 pertsona etortzen dira Mendizorrotzara bi astetik behin; Bigarren B mailan egonda 7.000 edo 7.500 etortzen ziren. Asko da, edozein modutan, baina estadioa ez zen betetzen. Gure lana berdina da, motibazioak ere berdina izan beharko luke, baina klubaren apustua, Lehen Mailan egonda, handiagoa da».

Hainbeste urtetan, harreman berezia sortu da Etxabe eta klubeko jendearen artean, eta Arteman komunikazio agentziako kide moduan Manu Garcia eta Gaizka Toquerori buruzko

dokumentalak zuzendu ditu. «Konfiantzazko harreman batetik sortutako proiektuak dira. Manu Garciarena harreman estu batetik dator. Berak Alavesen egin dituen urte guztietan ni hor egon naiz, eta harremana geneukan. Bera gasteiztarra da, ni ez, ni aretxabaletarra, baina Gasteizen asko bizi izan dut eta asko egon gara. Gaizkarekin gutxiago, denbora gutxiago egon zelako, baina berarekin ere sortu zen harremana. Nik klubarekin dudaren harremana 'speaker'-a izatetik harago doa. Esango dizut ni hasi nintzenean ez neukala familiarik, eta orain hiru seme dauzkat, eta hirurak dira Alaveseko "forofo", zale eta bazkide».

esatari lanetik harago doa komunikazio prozesua: «Horrekin guztiarekin saltza bat egitea litzateke, eta alde horretatik bai desberdinduko nuke irrati esatari baten lanetik. Irrati esataria gehiago da bereziki informatzailea, eta ekitaldi horren transmisioa egiten duena, noski bakoitzak erabakitzen duen tonuan. Kale mailan dabilen 'speaker'-a askoz gehiago da: animatzaile lana egiten duena, musikarekin maiz, eta horrekin batera momentuan oso garrantzitsua den informazioa behar bezala helarazten duena».

#### HELMUGAN DAGOENARI

Esan bezala, mendi lasterketa, triatloi, ziklismo edo atletismoko iraupen probek badute ezaugarri propio bat futbol, saskibaloi edo pilota partidekin alderatuz. Kasu

gehienetan –hori ere aldatzen ari den arren– helmugan dagoen pertsonak ez du kirol proba bere osotasunean ikusten, eta horrek balio gehigarri bat ematen dio esatari lanetan dabilen profesionalari.

«Irudimenetik apur bat tiraka, eta filibusterismotik ere bai, jendea goian edukitzea», izaten da helburua, Elduaienek umorez aitortzen duen moduan. «Bertan dagoen jendeak pentsa dezala 'joño, horrek nonbaitetik informazioa ateratzen dik'. Maiz tokatu izan da ikusten ez duzun hori nolabait imajinatu eta, gezurrik esan gabe noski, emozio edo espektatiba hori saltzea, lehia handia dagoela eta ikuskizun ederra izaten ari dela transmititzea, laster jendea dagoen helmuga, plaza edo dena delako horretara

helduko dena. Egia da antolakuntzetan ia beti egoten dela barne informazio sare bat. Nahiz eta irudietan ikusi ez, probaren nondik norakoa jakiteko datu batzuk izaten dituzu, eta horien interpretazioa izaten da mikrorra eramaten duguna», gehitu du, serioago jarritz.

Baina hori ere aldatzen ari da. «Zuzeneko streaming-ak gero eta gehiago egiten dira, gero eta eskuragarriago dago teknologia hori, eta horrek dakar 'speaker'-a asmatzaile izatetik narratzaile izatera pasatzea. Leku askotan jartzen dira pantaila erraldoiak, eta jendeak ikusten duena kontatu behar du. Hor bai gera daitekeela 'speaker'-a salduta, berak dioenak bat etorri behar duelako jendeak ikusten duenarekin, eta horretarako lehen eskuko informazioa eduki behar da.

Hor ez du balio esateak 'ikusten dugu kirolari bat, ematen du hau dela...' Publikoko ia edonork arazorik gabe ezagutuko duen atleta esatariak ere ezagutu behar du, eta hor *handicap* bat dago. Era berean, bizigarri bat ere bada, profesional ona izatera behartzen zaituelako. Hau ez da bakarrik egunean joan, mikroa piztu, musika apur bat jarri eta bi kontu esanez apur bat girotzea kontua. Ez, ez. 'Speaker' on batek aurretik lan ikaragarria izaten du etxean egin beharrekoa: informazioa jaso, eguneratuta egon, atletak zertan dabiltzan ikusi, zer ibilbide egiten duten...»

#### GARRANTZIA ETA ERANTZUKIZUNA

Elduaienek ere argi ikusi du urteotan "speaker"-ari gero eta garrantzi handiagoa ematen zaiola kirol ekitaldietan, «ulertu delako

osagarri oso garrantzitsua dela antolakuntza batek duen helburu nagusi horretarako, publikoa erakartzeko; eta publiko hori goxatuta eta girotuta edukitzea 'speaker' baten esku dagoela askotan».

Era berean, "speaker" profesionalak erantzukizun handia du, antolakuntza gehienak amateurrak direla jakinda. «Antolakuntza amateur batean, ordainduta han azaldu den 'speaker'-a norbait pribilegiatua da, inguruan dauzkan ia pertsona guztiak beren borondatez dabiltzalako lanean, ez egunean bakarrik, baita aurreko aste eta hilabeteetan ere. Kontziente izan behar duzu egun handia iristean haiek egindako lan hori borobiltzeko erantzukizun handia daukazula, eta alde horretatik, enpatia asko sentitzen da antolatzaileekin».



Amaia BALLESTEROS


IRRITZIA:

# LUR AZPIKO ABENTURAK

## KLOPKLOPKLOP BRMM...



# AGUR BEN-HUR



AB<sup>23</sup>



## Mila euro eta ezin iritsi

**Miren AZKARATE  
BADIOLA**

**Z**enbaki gorrietara iritsi gabe hilabetea mila euroekin pasatzen nuen ehundaka horien artean nengoen ni, duela gutxi arte. Orain, aldiz, kopuru horrekin hilabete bukaerara iristen ez naizen milaka horien artean aurkitzen naiz. Norbait badago lehenagoko taldean, mesedez konta diezadala nola egiten duen... Zer pasatu da hain denbora gutxian? Nola ari da bizitzen, edo hobe esanda, bizirautean, jendea?

Baten batek esango du “gerrikoa estutuz” edo “noski, bizioak eta luxuak

kenduz”. Bai bai, hori dena egiten dut. Aipatu euro guzti horiek etxean eta bere gastuetan eta janarian gastatzen ditut.

Zorionez, arropa bezalako gastuetan denetarako gustatuko litzaidaken sistema erabiltzen dugu etxean: trukea. Haurren arropa (kuadrillako haur zaharrenei txikiak geratzean gurera iristen da eta gurei txikiak geratzean segitu egiten du dantzak), eta helduegan antzeko, batzuei txiki edo handi geratutakoak beste norbaiti ongi geratuko zaizkio.

Denbora honetan pasatu dena ulertzeko ez da ekonomian aditua izan behar: prezioek gorakada izan dute eta soldatak berdin mantendu dira. Okerrera, igoera hauek ez dutela etenik eta gora eta gora doazela. Noiz arte? Zer gertatuko da? Zer gertatu behar du honek guztiak eztanda egiteko? Hori bai, Gabonetan kontsumismo basatian eroriko gara eta elikagaien bankuan arroz eta lenteja kilo bat botako dugu gure auzoko supermerkatuak horretarako jartzen duten saskian. Laster hortik jan beharko du gehiengoak. •

## Barrenean bueltaka

**Asier AIESTARAN**

**E**sku artean duzun komunikazio proiektu hau memoria ariketa erraldoi batean murgilduko da datorren urtarriletik aurrera, GARAREN 25. urteurrena ospatzeko. Dagoeneko aipamen batzuk egin dira egunkarian eta datozen egunetan xehetasun gehiago jakingo dira.

Nire kasuan, beste memoria ariketa eder bat egiteko aukera izan dut berriki, Josu Txapartegi “Txapas” elkarrizketatzeko parada izan dudalako Pirritx, Porrotx eta Marimototsek argitaratu

duten “Txapasen kaxa magikoa” ipuin-diskoaren kariatara.

Txapas nire irakaslea izan zen hiru urteko gelan, 1985. urteaz ari gara, eta hamarkada batez berak deskubritu zizkigun musikaren balioak. Noski, orduan gu ez ginen jabetzen lantzen ari ginen guztiaren garrantziaz, baina ziur gaur egun garenaren zatitxo bat oinarri haietan sustraitzen dela.

Era berean, hotz-hotzean ze urteriburuz ari garen begira jarrita, 1985-1995 tartea gutxi gorabehera, ezin dut buru-

tik kendu Euskal Herrian zenbat sufri-mendu pilatzen ari zen. Kasu honetan ere, gure adinagatik, seguru asko ez ginen gehiegi konturatzen gertatzen ari zenaz, baina gure gaur egungo izaeran horrek ere nolabait eragingo zuen.

Barrenean horiek denak bueltaka nintzela elkartu nintzen Txapasekin, 2023a ere apurka itzaltzen ari den honetan, eta asko bete ninduen berarekin lasai eta goxo izandako elkarrizketak. Kasu honetan, unearen garrantzia erabat barneratuz. Mila esker! •

# SPEEDWATCHING FENOMENOA

Bideoak eta audioak azkarrago kontsumitzeak eragina izan dezake gazteenen garunean eta ulermen gaitasunean

**S**peedwatching esaten zaio bideoen eta audioen abiadura azkartzeko aukera ematen duen fenomenoari. Fenomeno berri horren eragina nabarmenagoa da belaunaldi gazteetan, nahiz eta biztanleriaren sektore guztiei eragiten dien. Adituek galderra jarri dute mahai gainean: nola eragiten die fenomeno horrek ulermen eta ikaskuntza prozesuei?

«Speedwatching-a hainbat abantaila eskaintzen dituen egungo kontsumo-eredua da, baina ondorioak ere baditu, are gehiago prestakuntza eta ikaskuntza aldi batean dauden belaunaldi gazteengan, baita arreta, atxikipena, ulermena eta memoria bezalako gaitasunen heldutasun-prozesu batean ere», azaldu du Sylvie Perez psikopedagogo eta Universitat Oberta de Catalunya (UOC) irakasleak.

YouTube bideo-plataformak 2010ean bideo baten abiadura bizkortzeko aukera sartu zutenetik, mezularitzako hainbat aplikaziok (WhatsApp edo Telegram), sare sozialek (TikTok) eta podcastek edo zuzeneko bideo-plataformek (Netflix edo Amazon Prime Video) aukera ematen dute, besteak beste, 1x-ko edukiaren abiadura 1.25x, 1.5x eta are 2x-ra igotzeko. Tresna hori jarraibide komuna da gaur egun ikasleek beren hezkuntza-etapan erabiltzen dituzten audioak, bideoak eta hitzaldiak kontsumitzeko.

«Speedwatching-a gauzak presaka bistartzeko erantzuna da, itxaronaldiak kudeatzea

gero eta gehiago kostatzen den garai batean sortua. Izan ere, alor askotan azkarregi joaten ari gara prozesu honetan, bereziki gazteenentzat, baita nerabeentzat ere», esan du Perezek.

Speedwatching-a azaltzen duten faktoreen artean, denborarik eza, bizi-erritmoa edo ekintza edo jardueraren batean parte ez hartzeak dakarren antsietatea (FOMO fenomenoa edo kanpoan egoteko beldurra, ingelesezko siglengatik) nabarmentzen dira.

Adituen hitzetan, estimulazio azkar eta iraunkorrak burmuina kitzikatzen du eta ez

## TEKNOLOGIA / GAUR8

Ikus-entzunezkoak berez sortu diren erritmoan baino azkarrago ikusteko eta entzuteko aukera ematen du «speedwatching» izeneko fenomenoak. Presak agintzen duen garaian onurak izan baditzake ere, haurren eta nerabeen garunean eta ulermen gaitasunean kalteak sor ditzakeela ohartarazi dute adituek.

Gazteenen artean nabarmenagoa da audioak eta bideoak azkarrago ikusteko joera. Podcasten kasuan ere asko ematen da fenomeno hori. GETTY IMAGES

du hainbeste ahalegin mental eskatzen. «Etengabeko estimulazio hori dela eta, normala da emandako informazio guztia ez prozesatzea eta mezuaren igorleak (irakasleak, ikaskideak edo ikus-entzunezko produktuak berak) egiten duen ahaleginaren balorazioa galtzea», ohartarazi dute.

Speedwatching-ari buruzko datu zehatzei dagokienez, Google eta Alphabet teknologia-erraldoiek 2022an esandakoaren arabera, «YouTubeko erabiltzaileek 900 urte baino gehiagoko batez besteko denbora aurreztu zuten, bideoak abiadura azkarragoetan begiratzean. Gure erabiltzaile askok funtzio hori maite duten arren, batzuentzat abiadura oraindik ez da behar bezain



handia. 3x, 3.5x eta 4x-ko erreproduzio-abiadurak gehitzeko eskaerak ere jaso ditugu».

Eta podcastaren kasuan, antzeko egoera gertatzen da. iVoox plataformak argitaratutako 2023ko Espainiako podcastaren kontsumoari buruzko estatistiken arabera, biztanle gehienek ohiko abiaduran kontsumitzen dituzte podcastak, baina %10,48k abiadura azkarrean entzuten dituzte. «Informazioa atxikitzeak eta ulertzeak informazioa barneratzeko eta oinarri horren gainean gaitasun kritikoa garatzeko aukera ematen du, baina kontsumo azkarrarekin gaitasun hori deuseztatzen ari gara, baita itxarote-denboren arreta edo

**«Informazioa jaso eta ulertzeak hori barneratzeko eta oinarri horren gainean gaitasun kritikoa garatzeko aukera ematen du. Kontsumo azkarrarekin hori kaltetu daiteke»**

**«Helduek garuna osatuta dute, baina adin txikiko, nerabe edo gazte bat eraikitze-fasean dago, eta, beraz, haren garuna hauskorragoa eta askoz ahulagoa da»**

kudeaketa ere», azaldu du adituak kontsumo-joera horren balizko ondorioei buruz.

**ARRISKUAK, ONDORIOAK, ONURAK**

Fenomeno nahiko berria izan arren, dagoeneko badira ikus-entzunezko produktuak abiadura azkarrean kontsumitzeak izan ditzakeen ondorioei eta arriskuei buruzko ikerketak. Alde horretatik, Amerikako Psikologia Elkarteak duela gutxi egindako lan baten arabera, bideo bat

azkarrago erreproduzitzeak (kasu honetan hitzaldi bat) eragina du edukiaren ulermenean, nahiz eta denbora laburragoan informazio gehiago jasotzearen onura ere baduen. Hala ere, kontuan izan behar da kontsumo mota horren ondorioak eta etekinak pertsona bakoitzaren gaiari, ikaskuntza-ereduari eta interesari buruzko alde aurreko ezagutzaren arabera dilerela.

«Gaur egun, presaren eta estresaren kultura bizi gara, eta horrek eragin handiagoa izan dezake gazteengan eta hezkuntza-etapetan. Helduek garuna osatuta dute, baina adin txikiko, nerabe edo gazte bat eraikitze-fasean dago, eta, beraz, haren garuna hauskorragoa eta askoz ahulagoa da», argudiatu du psikopedagogak. Zehaztu duenez, kontsumo mota hori luzatzen bada edo ohitura bihurtzen bada, «askoz ere ahalegin handiagoa egin behar da horrek arreta, kontzentrazioa, atxikipena, memoria edo kritika bezalako gaitasunetan eragin dezakeen kaltea arintzeko, baita garapen kognitibo, emozional eta sozialean ere».

Bestalde, duela gutxi egindako azterlanek azaltzen dutenez, gazteenek azkarrago ikus ditzakete hitzaldien bideoak, memorian defizit esanguratsurik izan gabe. Aldiz, helduagoek abiadura handiagotzen duten errendimendua okerragoa da. Are

gehiago, abiadura azkarra-  
goak gazteen distrakzioak murriztera irits daitezke, arreta galtzeko joera handiagoa duen gizarte-taldea baita.

Hala eta guztiz ere, adituak denbora aurrezteko bideoak bizkortzearen aurka agertu dira. Modu nabarmenean, bideo edo audio bakoitzak ikus-entzunezko konplexutasun, zailtasun, elkarrizketa eta gainjartze espezifiko bat duelako, abiadura handitzean gal daitekeena.

«Hainbesteko estimulu azeleratuaren aurrean, burmuina 'aspertu egiten da' eta, abiadura horretan horrelako estimulurik jasotzen ez badu, pasiboagoa bihurtzen da, ez baitago ohituta adi eta kontzentratuta egotera, estimuluak jasotzera baizik. Speedwatching bezalako fenomenoek primitiboago bihurtzen gaituzte eta informazioaren prozesamendurik gabeko estimulu-erantzunaren aurrean bakarrik jarduten dugu», zehaztu du Perezek.

Alde horretatik, kontuan izan behar da bideoaren eta audioaren kontsumoa pantaila bati lotuta dagoela erabat, zehazki, telefono mugikor edo mugikor adimendunari. Eta adingabeen kasuan, pantaila gehiegi erabiltzearen ondoriozko arriskuak ohitura txarrekin, atsedunik ezarekin eta lo-ordu eskasekin lotuta daude. «Speedwatching-a arau bihurtzeak ondorio larriak eragin ditzake gizartetalde gazteenetan, eta, beraz, modu kontziente eta ardurasuan erabili behar da teknika hori, etengabe gehiegikeriaz erabiltzea saihestuz, mezuak ulertzen direla eta ikus-entzunezko edukiaz gozatzen dela ziurtatzeko», jarraitu du adituak.





**Luixa REIZABAL**

EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea eta UEUko Psikologiako kosailburua



## Desgaitasuna eraldatuz: Bizimodu Independentterako Programak

**D**esgaitasunen bat duten pertsonen autonomia-aren bidean, Bizimodu Independentterako Programak (BIP) aurrerabide eta emantzipazio iturri garrantzitsuak dira. Programa horiek etxebizitza egokitua, laguntzaile pertsonal bat eta laguntza ekonomikoa eskaintzen dizkiete desgaitasunak dituzten pertsoneri, beraien bizimodua erabakitzeko duten eskubidea gauzatu ahal izan dezaten.

Gipuzkoan, duela 15 urte inplementatzen hasi ziren, modu esperimentalean. Programa horren helburua desgaitasun fisikoa duten pertsoneri etxean bizimodu independentea erraztea zen, laguntza ekonomikoa baten eta pertsona horien premiei erantzuteko pertsona baten laguntzarekin. Hamabost urte eta gero, Elkartuko (Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Gipuzkoako Federazioa), UPV/EHUko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Saileko ikertzaile talde batek programa horrek erabiltzaileengan izan duen eragina ebaluatu dute. Zehazki programan parte hartu duten 18 pertsonen arlo psikologikoan, sozialean eta ekonomikoan izan dituen ondorioak aztertu dituzte. Arlo psikologikoari buruzko emaitzak aztertu ditugu artikulu honetan.

Programan parte hartu duten pertsonen ebaluazio psikologikoa egiteko, alderdi psikopatologikoa (hau da, gaixotasun mentalaren sintomak) eta osasun mental positiboa (hau da, pertsonaren funtzionamendu psikologiko eta sozial egokia) aztertu dira ikerketa horretan. Horretarako, bost neurbide erabili dira, bi dimentsio psikopatologikokoari dagozkionak, eta hiru, osasun mental positiboari lotuak.

Ikerketa egiteko erabili den lagina bizitza bera bezain anitza izan da, hainbat ezaugarri eta beharrezanetako banakoek osatua. Ikerketaren asmoa argia zen: bizimodu independentea pertsona guztiei mesede egiten dien egoera dela frogatzea.

Oro har, esan daiteke parte hartzaileek osasun mental altua dutela, bai psikopatologiari dagokionez, bai eta osasun



Desgaitasuna duten pertsonen autonomia gai garrantzitsua da. GETTY

mental positiboari dagokionez ere. Alde psikopatologikoan, parte-hartzaileek depresio-, antsietate- eta estres-maila nahiko baxuak erakutsi dituzte. Biztanleria orokorrean gertatzen den moduan, laginaren heren batek depresio- eta antsietate-puntuazio esanguratsuak izan ditu. Biztanleria orokorrek alderatuta, desgaitasuna izateak psikopatologia-maila handiagoa eragin beharko lukeela pentsa zitekeen arren, hori ez da gertatzen, aztertutako laginean behintzat.

Osasun mental positiboari dagokionez, parte-

hartaileek osasun mental positibo nahiko altua erakutsi dute. Bai bizitzarekiko gogobetetzeari, bai ongizate emozional, sozial eta psikologikoan eta bai ingurunea menderatzeari, altuak izan dira puntuazioak. Berriz ere, biztanleria orokorrean gertatzen den bezala, parte-hartzaile batzuek osasun mental positibo baxua erakutsi dute.

Azkenik, egiaztatu ahal izan da psikopatologia eta osasun mental positiboa batera kontuan hartzen direnean, parte-hartzaileen gehiengoa osasun mental osoaren koadranteetan kokatu dela, eta soilik bi subjektuk izan dituztela psikopatologiako puntuazio esanguratsuak eta, aldi berean, osasun mental positibo baxua.

**Emaitza guztiak batera kontuan hartuta, programaren ebaluazio psikologikoari dagokionez, baieztatu daiteke, salbuespenak salbuespen, programa honetan parte hartu duten pertsonen osasun mentala biztanleria orokorrenaren antzekoa eta egokia dela.**

Nahiz eta biztanleria orokorrean nabarmenak izan generoaren arabera aldeak –gehienetan emakumeen kalterako–, ikerketan ez da generoari eta desgaitasun-motari dagokienez alde esanguratsurik aurkitu.

Hori guztia ikusirik, ondorioztatu daiteke Bizimodu Independentterako Programaren moduko esku-hartzeek eboluzionatzen jarraitzen duten heinean, pertsonentzat hain mesedegarria den bizimodu independentea posible ez ezik, lorgarria izango den etorkizun batera hurbilduko gairela. •

{ koaderno } **Xabier IZAGA**

# Henry Kissinger, «nerabe judu hura», eta Israel

**P**resaka diharduela dirudi Israelgo Armadak, bonba asko eta egun gutxi balitu bezala. Nonbait ere, 16.000tik gora hildako neurrizko erantzuna dela uste dute AEBek, eta hortik gora, biktima zibilak «minimizatu» egin beharra dagoela esan diote.

Erruduna Hamas omen da; Israelen, Gazan eta Zis-jordanian hildakoen erruduna. Eta zergatik ez Israel denen errudun?, galdetu du NBEko idazkari nagusiaren lehengusu lotsagabe batek. Israelen –eta AEBen eta Europaren– kontakizunaren arabera, mundua Hamasen erasoarekin batera hasi zen biraka. Baina ez al dira lehenagokoak jainko (sionistentzat) onbera bezain gupidagabe eta mendekari horren tribuak?

Interesgarriagoa da “zuk gehiago”-ka hastea, ordea, ezer konpontzen ez badu ere, arazoa ulertzea eragozten baitu, eta gainera, kontrako baina antzeko erreakzioa eragin baitezake, eta egia gehiago lausotu.

Hamasen sartu-irtenak eragindako 1.400 hildako israeldarrek zenbat hildako palestinar justifikatzen dituzte?, lotsagabeak berriro.

Denak, denak baitira Hamas, Israelgo ultraortodoxoek diotenez, eta Avigdor

Lieberman ultraeskuindarra ez ezik, Israelgo presidente Isaac Herzog ere uste horretakoa da: «Nazio oso bat da erantzulea. Zibilak kontziente ez zirelako eta inplikaturik ez zeudelako erretorika hori guztiz faltsua da. Matxinatu zitezkeen, borrokatu zitezkeen erregimen gaizto horren aurka». Egia esateko, 2006an Hamasen irabazi zituen Gazan hauteskundeak, eta gaur egun, seguru asko, sostengu handiagoa izango luke.

Hala ere, argudio horrek Hamasen erasoak justifikatzen du bete-betean, tematu da lotsagabea, Israelen logika horren arabera, israeldar guztiak baitira azken asteetako genozidioaren errudun, Israelgo Gobernuak haien boto gehienak biltzen baititu.

Herzogek, halaber, Henry Kissinger zendu berria gogoratu zuen: AEBetako Estatu idazkari ohi hura «naziengandik ihes egin zuen nerabe judu bat izan zen, eta munduko politikari bere esku-buruekin forma eman zion erraldoi bihurtu zen».

Baina «erraldoi» hura ez zen judu gisa nabarmendu, hain justu. Bere herrialdea –AEBak, eta ez Israel– «defendatzeko» bake itunak eta sarraskirik zitalenak eragiteko gauza zen. Bai, naziengandik ihesi AEBetara joan zen familia judu bateko semea izan zen, eta Israel gogoan izan zuen... Hango Gobernuak enbarazu bat besterik ez zela pentsatzen baitzuen, AEBen nazioarteko jokabide politikorako oztopo bat, alegia. 1973an, Yom Kippurreko gerraren amaiera negoziatu zuen, baina bere kezka ez zen alde bateko edo besteko

Henry Kissingerrek Israel gogoan izan zuen... Hango Gobernuak enbarazu bat besterik ez zela pentsatzen baitzuen, AEBen nazioarteko jokabide politikorako oztopo bat, alegia

hondamendia saihestea, Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundearen blokeoa altxatzea baizik.

Juduei dagokienez, oro har, ez ziren inoiz Kissingerren lehentasun izan, aitzitik baizik. Hara zer esan zuen Sobietar Batasunak herrialde arabiarren haserrea saihesteko juduen emigrazioa oztopatzen zuen garaian: «Sobietar Batasuneko juduen emigrazioa ez da gure kanpo politikaren helburu bat, eta juduak SESBeko gas-ganberetan uzten badituzte, ez da Estatu Batuen kezka. Agian kezka humanitario bat, baina ez Estatu Batuenak».

Hori zen «nerabe judu hura», AEBen –ez estatubatuarren– zerbitzari, onean nahiz txarrean. •

# «Kantuen bidez umea mundu bat sentitzen ari da; hori da ederrena, hori da heziketa»

**E**lkarrizketa berezia da hau sinatzen duen kazetariarentzat. Askotan esker txarrekoa den ofizio honek hiru urteko gelan bere irakasle izan zena elkarriketatzeko aukera eskaini dio 38 urte beranduago. Txapasek 77 ditu, eta osasun gorabehera batzuk izan ostean, bere ohiko agenda betearekin jarraitzen du: abesbatzak zuzentzen, gitarra erakusten, ostiralero ikastolako haurrak-tartean bere ikasle izandakoen seme-alabak- kantuan eta dantzan jartzen...

Bere ibilbideari omenaldi bat eginez, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek "Txapasen kaxa magikoa" disko-liburua argitaratu dute, zarautzarraren lana inspiraziotzat hartuta eta berak sortutako dozena bat abesti bilduz. Arantxa Urbek idatzi ditu testuak, Irrimarrak (Karmele Gorroño-Irene Irureta) egin ditu ilustrazioak eta Xabier Zabalak musika moldaerak. Opari ederra, datozen gabon hauetarako.

## **Nola sortu zen ipuin-disko hau egiteko ideia? Harritu zintuen proposamenak?**

Porrotxen gauzak dira. Oso lagunak gara eta okurritu zitzaion zerbait egin behar zela nire ibilbidearen inguruan. Egia esan, ez dakit zergatik, ni maisu bat izan naizelako, beste milaka bezalaxe. Horrelaxe jaio zen proiektu hau, duela sei bat hilabete.

## **Zer lan edo parte hartze eskatu dizu proiektuak?**

Batez ere kantuen aukeraketa bat egin dut nik. Ipuina Arantxa Urbek idatzi du eta ederki

ezagutzen nau. Esalditxoren bat esateko ere eskatu didate, baina batez ere kantuen aukeraketan hartu dut parte.

## **Aspaldiko lagunak dira proiektuan parte hartu duten asko. Horrek laguntzen du?**

Talde ona daukate. Musikariak, idazleak, marrazkilariak... Denetik daukate. Lan handia egin dute, baina era berean erraza egiten da, jende oso ona daukatelako.

## **Aurkezpena Zarautzen egin zenuten, baina zerbait gehiago ere izan zen, omenaldi ederra. Pozgarria izango da maitasun hori jasotzea.**

Oso pozgarria. Ez naiz gehiegi emozionatzen, adin hauetan emozioak nahiko neurtuak izaten direlako. Gauza asko ikusten dituzu eta emozionatzeko zerbait oso berezia izan behar du. Nik hau lagun arteko opari bat bezala jaso nuen, ederra izan zen eta oso pozik hartu nuen. Aurten antzeko beste batzuk ere izan ditut. Lehenik ikastolan egin zidaten omenaldi bat, gero herriko danborradan makila eman zidaten, eta orain hau. 77 urte bete ditut eta zahartzarora esker onez beteta daukat.

## **Seinale jendeak egindako lana eskertzen dizula.**

Nik ez dut uste ezer berezirik egin dudarik, nire lan eta ofizioan aritu naiz eta norbaiti lagundu ahal izan diodanean laguntzen saiatu naiz, baina uste dut jendeak eskertzen duela horrelako pertsona bat parean duenean, eta saiatzen dela esker on hori adierazten.

## **Atzera begira jarritz, urte asko izan dira irakasle lanetan, Za-**

**rauzko Salvatore Mitxelena ikastolari oso lotuta. Irakurri izan dizut zuen belaunaldiko irakasle gehienak euskara eta euskal kultura bultzatzeko helburuz sartu zinetela hezkuntza munduan.**

Halaxe da, gure belaunaldiaren historia da hori. Guk beste edozein ofiziotan amaitu genezakeen, baina gazte garaian kezka berezi bat geneukan, ikusten genuelako nola gure herriak erabat erdaldunduta zeuden, batez ere haurren kasuan. Manolo Urbietak ere pentsamendu horixe bera izan zuen. Hura Arantzazutik etorri zenean, umeak euskalduntzera dedikatu zen, musikaren bidetik. Eta nik ere, Tolosako Sacramentinoetatik etorri nintzenean, 24-25 urterekin, horixe pentsatu nuen, ahal nuena egingo nuela gure herriko haurren artean euskara zabaltzeko.

## **Musika zaletasuna lehenago-tik zetorren...**

Niri musikako lehen gauzaxoak, notak eta halakoak, Don Fernandok erakutsi zizkidan hemen, Zarautzen. Komentura 9 urterekin joan nintzen eta ordurako banekien solfeatzeko. Pianorako afizioa gazte bat jotzen ikusi nuenean sartu zitzaidan, 13 bat urte izango zituen hark. Ni harrituta geratu nintzen, nola litekeen esku batekin nota batzuk jo eta bestearekin besteak. 'Nik hau ikasi egin behar diat', pentsatu nuen. Eta halaxe izan zen. Salvador Garmendiak erakutsi zizkidan aurreneko nozioak pianoan, eta gero pixkanaka jarraitu nuen. Pianoa ikasten baduzu, eskusoinua erraza da, antzekoa delako, organoa jotzea ere bai. Eta horre-

## **JOSU TXAPARTEGI «TXAPAS»**

### **IRAKASLE OHIA ETA MUSIKARIA**

Euskara, musika, hezkuntza, herrigintza...

Zaila da Josu Txapartegiren (Zarautz, 1946) ibilbidea hitz gutxitan laburbiltzea, baina «Txapasen kaxa magikoa» ipuin-diskoak balio dezake bere lana hurrengo belaunaldiei transmititzeko.


laxe joan nintzen ikasten. Baina ez ni musikaria kontsideratzen naizelako. Nik beti pentsatu izan dut musikak balio behar duela beste helburu batzuen mesederako. Musikarekin gauza asko egin daitezke gure herri honetan, beste zaleztasun askoren artean gure herria musikazalea ere badelako.

**Eta urte askoan ardatz horiek, euskara, hezkuntza eta musika, batera joan dira zure ibilbidean. Zergatik da horren garrantzitsua musika haurren hezkuntzarako?**

Nik musikari baino garrantzi handiagoa eman diot kantugintzari. Kantuak badu musika, doinua, baina hitzak ere bai, eta horrek oso elementu konpletoa bilakatzen du. Zuk haurrak jartzen badituzu abesten, ez zara ari bakarrik beren erritmoa edo zentzu musikala lantzen. Noski, horretan ere ematen dizkiozu baliabide batzuk, badaudelako melodia hutsarekin haurra jantzi egiten duten abestiak. Baina horrekin batera, melodia horri letra egoki batzuk eranstean badizkiozu, poesiaz beteta daudelako edo umeak dituen kezak lantzeko balio dutelako, ez duzu heziketa hoberik aurkituko. Manolo Urbietak oso ongi asmatu zuen horretan. Kantu horien bidez asko esaten ari zara umeari eta umea mundu bat sentitzen ari da. Hori da ederrena, hori da heziketa.

**Galdera prestatuta neukan, baina jada bi aldiz aipatu duzu Imanol Urbietak. Zer ikasi zenuen harengandik?**

Komentutik itzuli nintzanean, Manolo niretzat deskubrimendu bat izan zen. Nik beti esaten dut hiru pertsona aurkitu ditudala nire bizitzan oso bereziak –gizonezkoak aipatuta,



Argazkiak: Andoni CANELLADA - KATXIPORRETA

*«Tolosako Sacramentinoetatik etorri nintzanean, 24-25 urterekin, horixe pentsatu nuen, ahal nuena egingo nuela gure herriko haurren artean euskara zabaltzeko»*



emakume oso bereziak ere topatu ditudalako—. Baina gizonezkoen artean bereziak izan dira Manolo Urbietak, “Mendi” eta Oteiza. Oteiza ezagutzeko aukera izan nuen, eta esango dugu hura berezia bakarrik ez, hura oso [nabarmenezko moduan ahoskatuz dio] berezia zela. Eta hirurak nik ildo berean ikusten ditut: herritarrak, beren jakinduria eta ahalmen guztia erabiltzen zutelako jendeari on egiteko; zorrotzak, beraien azterketak egiterako orduan; eta beti emateko prest zeuden pertsonak. Manolo Urbietak bazuen aukera banketxe batean zuzendari izateko, baina dena utzi zuen haurrekin euskara eta kantuak lantzeko. Nola ulertzen zituen pedagogia eta hezkuntza, horixe izan zen utzi zidan irakaspen handiena.

**Aipatu duzun «Mendi» (Juan Luis Mendizabal) ipuinean**

**agertzen da, eta berari egin zenion kantua ere bai diskoan; Gorritirena ere sartu duzue; Oteiza goraitatu duzu... Behar besteko garrantzia ematen al zaio arteari eta artisten lanari ikastetxeetan?**

Arteari bi alderdi ikusten dizkiot nik. Batetik, uste dut artistak gizartearen aurretik joaten direla, duten intuizio berezi horrekin zer etor daitekeen usaindu egiten dute. Artistak horretan dira onak, gizarteari pautak batzuk markatzen dizkiote nondik joan daitekeen erakusteko, ditugun korapilo horiek nola aska daitezkeen pista batzuk ematen dituzte. Beste aldea da, kasu batzuetan, artista batzuk oso kontserbadoreak izan daitezkeela, beren buruari begira jarri eta beste zerbait bilaka daitezkeela. Baina Manolo eta mota horretako artistak, beren ahalmen artistikoa herriaren defentsan erabiltzen dutenak

eta herriaren mesedetan jartzen dutenak, horiek oso inportanteak dira. Beti aurretik doazelako, markatu egiten dutelako nondik etor daitezkeen gure inguruan ikusten ditugun hainbat arazo, askotan oso gogorrek direnak. Horregatik maite ditut nik artistak. Gaur egun ez zaie kasu askorik egiten artistei, baina beraien lana behar-beharrezkoa da.


**Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin ere ibilbide luze eta oparoa egin duzu. Mundu ikuskera konpartitu batetik abiatutako elkarlana da?**

Uste dut Pirritx, Porrotx eta Marimototsek egindako lana asko eskertu beharko genukeela guztiok. Nahikoa da konparatzea egunero komunikabideen bitartez jasotzen ditugun mezuak eta ikusten dugun mundua, eta beraiek planteatzen duten mundu eta gizarte eredua. Zuria eta beltza

konparatzea bezala da, eta horregatik nabil ni beraiekin. Edo Pirritx, Porrotx eta Marimototsek proposatzen duten bidetik egiten ditugu gauzak: elkarrekin lan egin, elkarri begira bizi, gaur egun zaintza deitzen zaion hori balioan jarritz, solidaritatea, komunitatea... Edo bestela, zoritxarrez ikusten dugun mundua izango dugu: bakoitzak berea defendatu, besteak bost arma egin baditu nik zortzi eduki, bestea baino gehiago izan... Bi dinamika horien artean aurrenekoaren alde egin behar dugu, mundua desarmatu. Askotan pentsatzen dut: nik zergatik izan behar dut errusiarren kontrakoa edo ukrainarren kontrakoa? Ba ez, nik denak onartu behar ditut eta denen laguna izaten saiatu beharko dut. Edo Israelen ikusten ari garena. Nolatan ez dugu lortzen denon arteko elkarbizitza bat denontzako lekua dagoen mundu honetan? Horregatik laguntzen diet ahal dudanean Pirritx, Porrotx eta Marimototsi beste mundu hori bultzatzen.

**Aurkezpen ekitaldian egin zenuen gogoeta bat gustatu zitzaidan. Zenion politikak ez duela onartzen hutsik egotea. Esperantzaz ez bada betetzen gorrotoz betetzen dela.**

Aurreko batean zientziaren inguruan ari ginela galdera bat sortu zitzaigun: armagintzari lotuta, zientziak eskubide osoa al dauka arma gero eta hilgarriagoak egiteko? Eta lagun batek aipatu zuen zuk ez baduzu armagintza hori egiten beste norbaitek egingo duela, eta orduan haren mende geratuko zarela. Gerora askotan pentsatu izan dut horretan, eta ikusten dut horrela ez dagoela irtenbiderik. Nik uste



badut besteak baino arma hilkorragoak egin behar ditudala ez galtzeko, eta besteek ere berdin pentsatzen badute, emaitza txikizio hutsa besterik ezin daiteke izan. Orduan, soluzioa nonbaitetik etortzekotan Pirritx, Porrotx eta Marimototsek planteatzen duten mundutik etorriko da, beste begirada batekin funtzionatuz eta armak gutxituz edo desagerraraziz. Baina badirudi denok ez gaudela horretan, azken entzun duguna da udaltzainak ere armekin ibiliko direla. Eta mundu mailan ere indarkeriaren areagotze bat

*«Soluzioa, nonbaitetik etortzekotan, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek planteatzen duten mundutik etorriko da, beste begirada batekin funtzionatuz eta armak gutxituz edo desagerraraziz»*

bizi dugu. Eskuineko indarrek gora egiten dute etengabe, ziklo horretan bizi gara, eta ziklo hori nolabait pasa egin beharko dugu. Baina etorri beharko du gogoeta batek, planteatuz bidea ezin dela izan gero eta arma gehiago egitea, baizik eta ulertzea elkarrekin bizi beharko dugula.

**Horregatik da garrantzitsua hurrekin egiten den lana? Hor egongo dira etorkizuneko bidegileak...**

Guk esaten diegu umeei elkar maitatzeko eta elkarri laguntzeko, baina etxera joanda-

koan telebista jartzen badute heriotza besterik ez dute ikusiko. Aurrekoan ere albiste bat ikusi nuen, haur bat larri zegoen norbaitek baloiarekin soinua ateratzen ari zelako bultza egin eta paretaren aurka kolpe bat jasota. Horrelako mezu eta irudiak zabaltzen dira eta horrek eragina du. Eskerrak beste mezu eta irudi batzuk eskaintzen dizkiegun guraso eta irakasleok!

**Urte asko eman dituzu zuk hurrekin lanean. Gurasoa zara, aitona ere bai. Zer ikasi beharko genuke hurrengandik? Edo zer ikasi duzu zuk?**

Haurra misterio bat da, eta erakusten dizun lehen gauza da beti dagoela soluzio bat. Berrria da, landare berri bat bezala. Tomate hazia jartzea bezala da. Zuk badakizu gutxi gorabehera nolakoa izango den landarea, baina gero bakoitza desberdina da. Horregatik diot misterio bat dela. Hazi arte ez duzu jakingo zehazki nolakoa den. Gero bai, heltzen denean eta hiltzen denean esango duzu "halako altuera hartu zuen" edo "hainbeste tomate eman zituen", baina jaiotzan ez. Eta horrek sekulako esperantza ematen du bizitza honetan. Umeak esaten dizuna da: "Bidea ongi markatuidazu, nik nire bidea egin behar dudalako". Sekulako erantzukizuna da helduontzat, irakasle eta gurasoentzat. Kaka asko daukagu munduan, baina haur bakoitzaren esperantza berri bat da.

**Zuk helduekin ere lantzen duzu musika. Desberdina al da musika jasotzeko eta bizitzeko modua haurren eta helduen artean?**

Haurrentzat egiten den musikak oso berezia izan behar du. Imanol Urbietan izan zen mai-



su handiena horretan. Sustrai melodiko euskaldunak hartzen zituen, eta beti galdetzen zidan: "Kantu hauek euskal sustrairik ba al dute?" Nik beti baietz erantzuten nion, hala sentitzen nuela. Mundu guztian, haurrentzako abestiak oso sinpleak dira, baina armonia handia izan behar dute. Bukaerak, hasierak... osotasun bat izan behar dute. Ez joan oraingo gazteek entzuten duten musikarekin haurrengana. Agian hemendik 100 urtera balioko du, baina oraingoz ez.

Uste dut euskal musikan badugula arazo bat. Euskal kantagintza historikoki lasaia izan da, "melodioso", erritmo nahiko mantsokoa. Eta hor ongi konpondu gara orain arte. Baina mundu mailako beste influentziak etorri direnean, batez ere erritmo aldetik, txikitu egin dute. Disko honetan ere, nire kantuak harmonizatzerako garaian, Xabier Zaballak erritmoa sartu die. Gauza bat da guk "Boga-boga" abes- tea, akorde osoekin, baina gaur egungo musikan hori ez da ulertzen. Denak beste erritmo bat eduki behar du. Baina haurrena beste mundu bat da: melodia errazak eta errepikatzen direnak ongi ulertzeko.

**Munduko egoeraz hitz egin dugu, egoera kezagarria deskribatuz. Etxera begira, zure ibilbide militantetik nola ikusten duzu gaur egun Euskal Herriko egoera politikoa?** Iruditzen zait desberdina dela Estatu handi baten parte sentituz jaio den herritar baten egoera eta herri txiki batean jaio denarena. Guretzat "etnia" edo "nazioa" kontzeptuek balio dute oraindik. Guk horretan zortea daukagu, oraindik herri izaeratik, herritartasunetik, begiratzen diogulako

*«Uste dut erakundeek urrats bat eman behar dutela, eta argi esan euskara izango dela Euskal Herriko hizkuntza, legez, bai lanean, bai irakaskuntzan, bai beste esparruetan. Lotsarik gabe, gure hizkuntza delako. Ematen du pauso hori ematera ez garela ausartzen oraindik»*

munduari eta hori abantaila bat dela uste dut datorren munduari begira. Estatu handiek beraien artean borroka egin beharko dute ziurrenik eta, lehen aipatu ditugun arrazoiengatik, horrek arrisku handiak ditu. Guk beste ikuspegi bat daukagu, askoz ere orekatuagoa eta herritarrengandik hurbilagoa, eta hor gauzak asko aldatzen dira. Nik Podemos, Sumar eta hauei ikusten diedana da ezin dutela erabaki Estatu diren, marxistek beti amestu izan dutelako Estatu handi baten ardura hartu eta modu horretan gauzak aldatzea, edo Euskal Herri mailan kokatzea, herri txiki batean, aldaketak txikitik eraginez, mantsoago. Zalantza horretan daude, eta ongi erabaki beharreko zerbait da. Ez da egia handian antolatuta aukera gehiago dituzunik txikian

antolatuta baino. Marxistek egin beharreko gogoeta orokor bat da. Txikiak ere baditu bere arriskuak, noski, berean ixtea adibidez, baina esango nuke abertzaleok horretan abantaila dugula, munduari irekita baina txikitik eraginez.

### **Eta euskararen egoerari buruz zer esango zenuke?**

Batzuetan naufragio bat iruditzen zait, itsaso erdian egur bati heldu eta bizirauteko borrokan. Bizitza guztia daramat euskararen alde egiten eta euskara bultzatzen, baina belarriak irekitzen ditut eta hori erdaraz entzuten dut [televistan gaztelaniaz ari dira], kalean ere erdara entzuten dut... Oso borroka aspergarria da alde batetik, gure hizkuntzaren egoera latza delako. Era berean pozten naiz jendeak borroka horretan jarraitzen duela iku-

sita. Zarautzen adibidez orain- txe sortu dute elkarte berri bat, Zirika izenekoa.

Jende asko ikusten dut euskararen egoerarekin kezkatuta, baina agian politikan dago hutsunea. Uste dut erakundeek urrats bat eman behar dutela, eta argi esan euskara izango dela Euskal Herriko hizkuntza, legez, bai lanean, bai irakaskuntzan, bai beste esparruetan. Lotsarik gabe, gure hizkuntza delako. Ematen du pauso hori ematera ez garela ausartzen oraindik, eta Hezkuntza Legean ereduakin gertatu dena adibide ona da. Ematen zuen 30 urte eta gero iritsi ginela ulertzer A ereduak ez duela balio, eta azken unean berriz atzera. Horrek ez du esan nahi galdu egingo dugunik, egingo dugu aurrera, baina erakusten du urrats bakoitza zenbat kostatzen den.



*ireki gure leihoa*



**GAUR8**



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai, Usurbilen. Bertan hartzen du Mirarik Idoia kotxean. Orduan hasten da emanaldia. Jon URBE | FOKU

## *infraganti*

# MIRARI MARTIARENA ETA IDOIA TORREGARAI

Usurbilgo Aitzaga tabernan harrapatu ditugu Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai. Iluntzen ari du. Lehena barra ertzean dago, infusio batekin solasean, bigarrena tximista bezala, ilea euritan blai sartu denean. Hemen josi dute 'Ztandap', puzkerrak, bikoterik gabeko emakumeak, elkarbizitza eta orgasmo arrakala bezalako gai tabuak karkaraka ezandarazten dituen bakarriketa ikuskizun berria. Diman (abenduek 14) eta Iruran dituzte (urtarrilak 3) hurrengo emanaldiak. Gonbidatuta zaudete.

**S**abelean tximeletak dituzte. Ikuskizun berri bat hasi dute, eta urduri daude ea jendeak aitzinekoan bezain ongi pasako duen. «Azterketa handi bat da, baina ilusio handiarekin gaude», hasi da Idoia Torregarai. «'Luze edo Motz' aurreko ikuskizunare-

kin herriak gastatu genituen, 150 emanaldi inguru egin ondok. Plazan jarraitzeko gogoa dugu, gure lana gustatzen zai-gulako. Horrek sortzea eskatzen zuen», erantsi du Mirari Martiarenak. Hala egin zuten. Bien artean probatu, eta zuzenean plazara. Horregatik, leku seguru bat aukeratu zuten, Al-tzo. Aurreko bi ikuskizunak

bezala, bertan estreinatu zuten "Ztandap", azaroaren 3an. «Oso ondo atera zen».

Bakarriketak «oso gauza bi-ziak» dira bikotearentzat. «Testuak idatzita daude, baina inoiz ez ditugu esango idatzita dauden bezala. Nahiz eta gauza bera kontatuko dugun, kotatzeko modua desberdina izango da, zerbait gertatzen

bada erantsiko dugu... Zenbat eta seguruago sentitu testua, errazago egingo dugu, eta inprobisaziorako tartea ere handiagoa izango da», azaldu du oiartzuarrak. Horrek eskatzen duena da aunitzetan egitea.

"Luze edo Motz"-ek ederki funtzionatu du, eta urte bukaera honetan bi ikuskizunak uztartzen ari dira, baina etapa bat amaitu behar dela iruditzen zaie. Usurbildarrak adierazi duenez, ez dute bertan gogo gelditu nahi etengabe. «Gure denbora hartzen dugu batetik bestera, Euskal Herriko zirrikitu txikienera iristeko eta eroso eta gustura egoteko».

2018an sortu zuten lehendabiziko ikuskizunarekin, "Bakean dagoena bakean utzi"-rekin, gauza bera egin zuten. Lanku kultur zerbitzuekin elkarlanean hasi zuten bidea, eta hala jarraitzen dute.

### GARAPENA

Aurreneko ikuskizunean euskara gaiak ere sartzen zituzten; bigarrena genero ikuspegitik egin zuten, tabu gehiago puskatzeko; eta hirugarren hau ez da beharbada hain apurtzailea edo ikusgarria, baina azpian dituen gaiak sakonagoak dira. Beren estiloari jarraitzen diote, beren bizitzan eragina duten gaiak hartuz. Hori bai, esperientzia handiagoa dute orain.

«Beste jarrera eta segurtasun bat dugu oholtzan. Horrek ez du esan nahi lasai egoten garenik, ezta gutxiago ere. Baina erremintak baditugu momentu batzuetatik errazago ateratzeko eta indartzeko», esplikatu du Mirarik.

Hazi egin dira. Idoiak ez luke erranen iruzurgilearen sindromea izan dutenik. «Oso argi genuen egin nahi genuen hori egingo genuela, baina sortzai-



Usurbilgo Aitzaga taberna dute sortzeko toki kuttunetako bat. Jon URBE | FOKU

le gisa beti exijitzen diogu gu-re buruari zerbait aurrekoaren adinakoia izatea, eta horrek, noski, tximeletak baino kezka ekartzen digu. Gero, ikusten dugu funtzionatzen duela. Orain berriro hasi berritan bezala gaude, baina eskarmentu gehiagorekin. Konbinazio hori ere interesgarria da».

Lan txukuna osatu dutela uste dute. Gainera, nabari da haiek ere ongi pasatzen dutela. Torregarairan ustez, hori da beren indargunea. «Biok elkarrekin gehitu egiten dugu, ongi pasatzen dugu, saio bakoitza disfrutatu eta konpartitzen dugu. Bost urteko ibilbide hori egina izatea eta oraindik gogo- goa edukitzea eta esatea: 'Goa- zen, Mirari, Euskal Herriko txoko honetara', hori mundiala da, hori seinale bat da».

Estilo desberdinak dituzte. «Idoiak kanpora egiten du,

keinu askorekin, gehiago mugituz. Ni jarri eta gauzak kon- tatzen joaten naiz. Bat energia oso altuarekin doa, bestea ba- xuagoarekin. Hor ere oreka dugu».

Emanaldi guztiak ez dira berdinak eta badakite noiz da- goen bat harrotuta eta disfru- tatzen eta noiz dagoen buka- tzeko gogoz; hain ongi ezagutzen dute elkar, non hori ere badakiten, eta oholtzan el- karri laguntzeko balio die.

Emanaldia Usurbilen hasten da, Mirarik Idoia kotxean har- tzen duenean. «Batzuetan aste gogorra izaten dugu. Ez gara honetatik bakarrik bizi, bakoit- zak gure lanak ditugu. Ba- tzuetan gogorik gabe aterat- zen naiz etxetik, ze pereza Euskal Herriko beste puntara joatea orain etxean egon nin- tekeenean igande arratsalde batean lasai manta azpian,

baina badakit Idoia kotxean sartzen denean lehenengo ko- mentarioa hori izango dela, eta pasatzen dela».

#### LUR OROTARIKOAK

Euskal Herria dute plaza, bere zazpi probintziak. Aste berean egon daitezke Otxarkoagan, Vianan eta Baionan. Zuberoan ez dira egon, beste seieta bai. Emanaldia kultur etxean izan daiteke edo emakume femi- nisten areto batean. Areto for- mala izan daiteke edo gaztetxe bat. Kalean ere egin izan dituz- te bakarriketa-poteoak. Lur orotarikoak dira.

Formatu txikia dute eta ho- rrek askatasuna ematen die hainbat lekutan egiteko. Bi aulki, ura eta barre gogoz da- goen jendea, hori baino ez du- te behar. Herri ttiki ugaritatik deitzen diete. Batzuek ez dute antzokirik, herriko gela bat dute eta hor egiten dira ekin- tza guztiak. «Bizia sortzeko ai- tzakia ere bagara». Horrek ha- rrotasuna ematen die.

Zenbat frontoitan egin du- ten, festetan kalean, elizan, kanpinean... Esperientzia hori guztia hagitz ederra da haien- tzat. «Ikasi behar duzu ez dela berdina antzoki formal batean edo elkarte batean aritzea, edo haurrak dauden toki handi ba- tean. Horrek ematen dizu zail- tzea, kontzentrazioa lantzea eta erabiltzea».

Irri egitea kostatzen zaion jendea dagoen emanaldiei dei- tzen diete plaza zaila. «Gu- txiengoa dira. Beste batzue- tan, jendea barrez aritzen da, baina nahikoa da bat serio egotea; zuk berak barre egitea nahi duzu eta deseroso senti- tzen zara. Ahaztu egin behar duzu horretaz, indarra galtzen delako. Kontzentratu barrez ari direnekin eta gozatu», kon- tatu du Mirarik.

**«Elkarrekin gehitu egiten dugu, saio bakoitza disfrutatu eta konpartitzen dugu. Bost urteko bidea egina izatea eta gogoia edukitzea eta esatea 'goazen', hori mundiala da»**

**«Bi aulki, ura eta barre gogoz dagoen jendea, hori baino ez dugu behar. Herri txiki ugaritatik deitzen digute. Bizia sortzeko aitzakia ere bagara, eta horrek harrotasuna ematen digu»**

«Gai batzuk deserosoak edo tabuak izan direnez, pertsona batzuek ez diote beren buruari baimenik ematen barre egite- ko. Hor tentsio batzuk sortzen dira eta gu horiek puskatzera gatoz», gaineratu du Idoiak. «Herri batzuk barrura begira- koak dira gehiago, beste ba- tzuk lehenengo momentutik karkaraka hasten dira».

«Beste batzuetan, eboluzioa ikusten dugu. Hasieran kostat- zen zaie, gero barrez hasi eta lehertu egiten dira». Zirriki- tuak bilatzen dituztela azaldu du oiartzuarrak. «Badakigu txiste batek beti funtziona- tzen duela, eta egun batean ez da sartzen. Hori gertatzen da herri batetik bestera dena al- datzen delako eta deserosota- sunak sortzen direlako».

#### MUGIARAZI

Publikoarengandik hurbil- hurbil daude. Usurbildarraren- tzat hori da onena. «Polita da ikustea bati irribarre bat atera diozula. Baina batzuetan go- gorra ere bada. Denak serio daudenean eta zu dena ema- ten, hori ere kudeatzen jakin behar da».

Barre eragiteaz gain, zerbait mugiarazi nahi dute. «Gauzak kontatzerakoan jendeak ongi pasatzea bilatzen dugu, baina pentsaraztea ere bai. Batzue- tan txisteak barre egiteko dira eta kito. Ez dut pentsatzen zer-

baitekin mundua aldatuko du-danik, aldatuko dut agian, baina jendeak ongi pasatzea nahi dut, barre egitea ona delako niretzat eta besteentzat», adierazi du Martiarenak.

#### NORBERE BEGIRADA BEREZIA

Batzuetan, gai bati buruz mintzatzeko gogoia dute eta pentsatzen dute kontu arina dela, baina estutzen eta fintzen doazenean ohartzen dira beren begirada bereziekin jendea mugiarazi dezaketela. «Bizitza ikusteko gure modua umorea da, oso antzeko ingurua dugu eta gauza asko konpartitzen ditugu, baina bakoitzak gure begirada dugu eta jorratzen ditugun gaiak ere desberdinak dira».

Emanaldia idatzi, azken hila-bete eta erdian idatzi dute, baina egosten urtebete egon da. Kotxeko bidaietan aipatu dituzte gertatu zaizkienak eta eragin dieten kontuak, eta zakua betetzen joan dira. Urte hasieran bazekiten udazkenean zerbait eginen zutela, eta bitartean, gorputzean, buruan izan dute, ea zer ateratzen zen. Gero, galbahea pasatu, eta idatzi egin dute, txistek sartuz.

Bakoitzak bere zatia idatzi du eta gero elkarrekin josi eta gorpuztu dute. Batak besteari entzun, eta proposatu: «Zergatik ez duzu hau horrela esaten?». Batak bertzearen aitzinean egin du bakarriketa, hasieran pape-rarekin, gero gabe.

**«Hasi ginenean binakako bakarriketa esaten genion, baina egiten duguna Ameriketatik etorritako ‘stand up’ hori da, publiko baten aurrean zuzenean monologoa botatzea»**

**«Bi emakume kartelean ikusita, emakumeentzat dela pentsatzen da. Orain, gizonezko bat ikusita, denentzat da. Ba gurera ere nahi duena etor daiteke»**

Bost urte dira Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai elkarrekin herriz herri umorea egiten hasi zirela. Sabelean tximeletak dituztela aurkeztu dute hirugarren ikuskizuna: “Ztandap”.

Jon URBE | FOKU

#### BINAKA EGITEKO HAUTUA

Eztanda eta “stand up” hitze-kin jostatuz sortu dute ikuskizunaren izena. «Eztanda sonoritate handiko hitza da. Guk hori egiten dugu, gai asko ez-tandarazi: ezkutukoak, tabuak, emakumeenak... Argitara ekarri eta egur pixka bat eman. Hitz joko polita egiten zuen “stand up”-ekin. Hasi ginenean binakako bakarriketa esaten genion, baina egiten duguna Ameriketatik etorritako “stand up” hori da, publiko baten aurrean zuzenean monologoa botatzea. Hor, bada aldarri bat: guk ere bost urte daramatzagu Euskal Herri osoan hau egiten».

Binaka egiten dutela eta “stand up”-a bakarrik egin behar dela erran izan diete. Oiarzuarrak ohartarazi du horren atzean dagoela zergatik

hautatu duten binaka egitea, ze bera bakarrik hasi zen. “Mirarikeriak” izeneko bakarriketa bat zuen. «Baina oso gogorra egiten zitzaidan ni bakarrik joatea herri batera, ezagutzen ez nauten toki batera barre eragitera, emakume bati eskatzen zaion horren guztiaren kontrakoa egitera. Horren atzean bada-go hautu bat: elkartu eta indartzea». Ahizpatasuna hori ere bada.

#### FEMINISTA

Oraindik aldarrikatu beharra dute egiten dutena ez dela emakumeentzat bakarrik. «Emakumeak etortzen dira gehienbat. Talde feministak antolatzen badu gizonezkoek segituan deskonektatzen dute, eta bi emakume kartelean ikusita, emakumeentzat dela pen-

tsatzen da. Orain, kartelean gizonezko bat ikusita, denentzat da. Ba gurera ere nahi duena etor daiteke». Gizon aunitzek erraten diete: «Zenbat ikasi dudan!». Funtzio sozial hori ere betetzen dutela diote irriz.

Feministak diren momentutik, sortzen dutena feminista da. Aunitzek kontratatzen dituzte berdintasun sailetik eta talde feministetatik, baina kulturatik ez hainbertze, eta gizonezko bakarriketageileak kulturatik ere kontratatzen dira. «Horretaz aparte, kulturak udaletxeetan mugitzen duen aurrekontua handiagoa da feminismoak edo berdintasun sailak mugitzen duena baino».

Euskal Herrian bada bakarriketageileen olatu bat, eta pozez bizi dute hori. Tarteka gauzak egiteko elkartzen dira. Bilbon, Ane Lindanek eta Raquel Torresek “Despotorrea” jarri zuten martxan. Sekulako aukera da horretan hasi nahi duten emakumeentzat. Dokan ere “Kar kar probalekua” egin da.

Ikuskizunean Torregarai hasten da, puzkerrak eta emakumeon fintasuna lotuz. Gero, Martiarenak bikoterik ez duten emakumei buruz gustura hitz egiten du. «Banuen gogoia. Gizartea binaka bizitzeko pentsatuta dago eta barre egin nahi nien ustez zorionsu diren bikote horiei eta pentsatzen dutenei ni emakume triste bat naizela».

Jarraian, elkarbizitzari hel-tzen dio Idoiak eta esaten du dena ez dela arrosa kolorekoa. Sexuari buruz aritzen da Mirari, orgasmo arrakalaz zehazki. «Emakumeok pairatzen dugu, soldata arrakala bezalaxe». Emakumeok aditu behar izaten ditugun gauzeekin bukatzen dute. •



# BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



## GABRIEL CROMER-EN BI ARGAZKI, 1896AN BIARRITZEN

Bere argazki-bildumen garrantziagatik mundu mailan ezagunak diren bi erakundeek, AEBetako George Eastman museoak eta Frantziako Liburutegi Nazionalak, beren funtsen artean gordetzen dute 1839an hasi zen argazkigintzaren historiako bilduma pribatu garrantzitsuenetako bat, Gabriel Cromer frantsesarena (1873-1934). Daguerren erretratu ezagun eta erreproduzituenetako bat, 1844an Jean Baptiste Sabatier Blot-ek egina, bilduma honen parte da. Gabriel Cromer abokatua izan zen ofizioz, baina ez zuen inoiz horretan lan egin. Zuzenbide ikasle zen garaitik argazkilari lanetan aritu zen, eta Parisen estudio ere izan zuen. Aipatutako bi erakundeek 6.000 objektu baino gehiago dituzte, argazki, aparatu, liburu, eskuliburu, aldizkari eta dokumentuen artean, urteen poderioz enkanteetan, martxantetan eta antikuarioetan jasotakoak. Frantziako Liburutegi Nazionalak bere bidaietan egindako argazki album batzuk gordetzen ditu. Horietako batek "Quelques vues de Biarritz et de Bayonne: Fevrier 1896" izenburua du eta Biarritzeko 19 argazki eta Baionako 6 ditu. Oro har, ikuspegi panoramikoak dutenak dira, Biarritzeko bi izan ezik; hain zuzen, artikulua ilustratzen dutenak. Batean arrantzaleak eta emakumeak otarrekin ikusten dira arraina kargatu aurretik, eta bestean, arrantzale talde bat portuan euren ontzien.



**Josune GALLEGO MERINO**

UPV/EHUko Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea



## Irudi zientifikoek mundua esploratzen: irudi hiperespektralaren potentziala

**Irudi zientifikoa funtsezkoa da fenomeno konplexuak ulertzeko. Irudi zientifikoetan teknika ezberdinak erabiltzen dira espektro elektromagnetikoaren hainbat uhin-luzera neurtzeko.** Material guztiek energia elektromagnetikoa islatu, xurgatu eta igortzen dute uhin-luzera jakin batzuetan, beren konposizioaren eta egitura molekularren arabera. Teledetekzioa, edo “*remote sensing*”, materialen propietate horietan oinarritzen da, eta toki edo objektu baten ezaugarriak distantzia batetik behatzeko edo neurtzeko prozesuari dagokio, normalean sentso-re bereziak erabiliz. Sateliteek, dronek eta beste plataforma aerotransportatuek sentso-re horiek eramaten dituzte.

Irudi hiperespektralak hiru dimentsiotan adierazi daitezke, koordenatuak eta neurtutako espektroa erabiliz. Lehenengo bi dimentsioak irudi arrunt batek dituenak dira, hau da, pixelen koordenatuak. Hirugarren dimentsioan gordezten da pixel bakoitzari dagokion espektroa. Irudi hiperespektralei “kubo hiperespektral” deitzen zaie. Hona hemen hiru adibide: 1) <https://labur.eus/Ycw4z> 2) <https://labur.eus/ZpqII> 3) <https://labur.eus/EmhXI>

**Informazio hori guztia prozesatu egin behar da modu ulergarrian erakusteko.** Gainera, ikuspuntu desberdinetatik interpreta daitezke datuak, eta prozesatzeko aukeratzen diren dimentsioen arabera modu desberdinean irudika daitezke.


Kubo hiperespektraletik bi dimentsioko irudi bat sortzeko lehen ideia intuitiboa da pixel guztiak bi dimentsio espazialean antolatzea, lortu zirenean zuten erlazio geografikoa gordez. Ondoren, pixel bakoitzaren espektrotik hainbat banda aukeratzen dira. Islatu nahi den fenomenoak koloreen bidez adierazten da. Ez da ohiko argazki bat eta, beraz, koloreak ez dira normalean guk ikusten ditugunak. Adibidez, landareek espektroaren izpi infragorria modu indartsuan islatzen dute, eta informazio hori irudian kolore gorri adierazi ohi

da. Beraz, irudian gorri agertuko dira landarek estalitako lurak eta ez berde, guk ikusi ohi ditugun bezala. NASaren irudietan ikus daitezkeen moduan.

Bi dimentsioko irudia sortzeaz gain, espektro elektromagnetikoaren kurbei esker pixel bakoitzaren edukia identifikatu daiteke. Horretarako, sentso-reen bidez jasotako espektroaren kurba material ezagunen espektroarekin konparatzen da (urarena, landareena, lurrarena, etab.), pixelak zein material adierazten duen identifikatzeko. Era horretan, lurrazalaren konposizioa ezagutzea lortzen da. Honek guztiak laguntzen du ingurumenaren zaintzan, hirien plangintzan, nekazaritzan, arkeologian eta iragarpen meteorologikoetan.

**Teknologia hiperespektralaren garapenari esker, sentso-reen tamaina asko txikitzea lortu da, eta horri esker, beste arlo batzuetan ere aplikatu daiteke.** Horrela, medikuntzan adibidez, tresna ahaltzua da eritasunen diagnostikoa modu ez-inbaditzailean egiteko, eta ebakuntza kirurgikoetan ere erabiltzen da, gida gisa.

Artean artelanak aztertzeko erabiltzen da, piezen egoera behar adinako zehaztasunez ebaluatzeko. Pinturen kasuan, adibidez, irudi hiperespektralak margolanaren kolore originala fideltasun handiagoz identifikatzeko erabili ohi dira. •



Irudi hiperespektralei «kubo hiperespektral» deitzen zaie. GAUR8

osasuna / psikologia / teknologia

3 BEGIRADA:

# GABONAK 2023

**GARA**ko komunitatearentzako eskaintza berezia

## Kataluniako caven sorta bi botila María Casanovas Brut de Brut



### MARIA CASANOVAS

Sant Jaume Sesoliveres.  
(Penedes, Bartzelona)

Elaborazio tradizionala.

%100 Ekoizpen ekologikoa.

**KALITATEZKO CAVAK**

**22**  
euro

**SORTA BAT**

(bidalketa gastuak: 5,74€)

**40**  
euro

Eskaintza berezia

**BI SORTA**

(bidalketa gastuak: 8,16€)

**GARA**

**ESKAERAK EGITEKO:**

Harpidedunek: Mezu elektronikoari erantzunez • Naiz Denda: [denda.naiz.eus](http://denda.naiz.eus) • Arreta Zerbitzua: 943 31 69 99

